



## Ika, ika, ika... badator Korrika Durangaldera

**Korrika** • Korrika martxoaren 14an hasiko da, Irundik, eta Euskal Herri osoa zeharkatu eta gero Baionara ailegatuko da, hilaren 24an. AEKren egitasmoak birritan bisitatu du Durangaldea, martxoaren 20an eta 22an. • **13-25**

## Aldarrikapen feministak lehenengo lerrora



**Martxoak 8** • Emakumeen Nazioarteko Eguna da gaur eta mugimendu feministak Durangaldeko kaleak hartuko ditu aldarrikapenak agenda sozial eta politikoan txertatzeko. Eskari nagusien artean, azaroaren 30eko greba orokor feministan plazaraturikoak daude: zaintza sistema eraldatzen hastea. • **2-3**

## Sinadurak batzen, Elorrion eguneko zentroa egiteko

**Elorrio** • Herritar talde batek 'Bizi dain, eguneko zentroa orain' kanpaina martxan ipini du Elorrion. Kanpainaren barruan sinadurak batzen hasi dira herrian eguneko zentroa egiteko. • **6**

Otsailaren 29tik martxoaren 31ra

## ZORABIATZEKO MODUKO ESKAINTZAK

**%20ko\***

Deskontua zure sukaldeko altzarietan

Ikusi baldintzak zure Schmidt saltzailearekin



## “Beharrezkoa da etxerik etxeko arreta zerbitzua ikusgai egin eta publikatzea”

Zornotzako mugimendu feministak etxerik etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen duten beharginen errealitatea ikusaraziko du gaurko mobilizazioetan. "Ikusezina" den egoera baten aurrean kontzientzia hartzera deituko dituzte herritarrak. Eta eskariak udalari ere helaraziko dizkiete. Haiena da, etxeko langileena, zaintza sistemak dituen askotariko ertzetariko bat

**ETXEKO LANGILEAK • EKAITZ HERRERA**  
Itxaso Lur Gonzalez, Ana Isabel Vegas eta Amaia Astobiza Zornotzako mugimendu feministako kideak dira. Gaur mobilizazioen lehenengo larriroan egongo dira, egungo zaintza ereduaren aurrean alternatibak aldarrikatzen. Besteak beste, etxerik etxeko laguntza zerbitzua eraldatzean egingo dute azpimarra. Gonzalez eta Vegas zerbitzu horretako langileak dira.

**Aurtengo aldarrikapenetan, etxerik etxeko arreta eskaintzeaz arduratzen diren beharginen errealitatea ikusaraziko duzue. Zein da zuen lan zehatza?**  
Itxaso Lur Gonzalez: Zornotzako etxebizitzetan lan egiten dugun beharginak gara. Etxerik etxe lan egiten dugu, normalean haien kabuz moldatzeko ahalmenik ez duten herritarrei laguntzen. Zeozelan esateko, *multizereginak* egiten ditugu. Hau da: beharrezina duen herritarra garbitu, harentzat kozinatua, errekaduak egin, etxea txukundu, entzun, psikologo lanak egin eta zeregin administratiboetan laguntzen dugu. Horrez gainera, azkenaldian, bazterkeria egoeran dauden

herritarrei ere laguntzen hasi gara. **Zein da zerbitzua eskatu gura duen herritarrak egin beharreko bidea?**  
Ana Isabel Vegas: Lehen, zerbitzua eskatu gura zuenak Nafarroa Zentrora jotzen zuen gizarte laguntzaileagaz hitzordua eskatzeko. Orain, oster, Herritarrentzako Arreta Zentrora jo behar duzu lehenengo, eta Nafarroa Zentrora gero, han gizarte laguntzaileagaz egoteko. Sarritan, asteak ere pasatu daitezke hitzordua lortu arte, hilabete edo bi. Behin lortuta, behar duzuna adierazten duzu. Demagun zure se-

**Gizartea zahartzen dabil eta zaintzarako beharrezina geroago eta handiagoa izango da**

nideren batek, aitak, amak, anaiak edo arrebak, ezintasunen bat duela. Senide horri mediku ebaluazio bat egingo diote, eta horren arabera zerbitzu bat ipini. Menpekotasun

mailaren arabera, egunean ordu-beteko zerbitzua, ordu bikoia edo hirukoia zehazten da. **Azaroaren 30eko greba orokorrean, mugimendu feministak etxerik etxeko langileen zerbitzua publikatzea eskatu zion udalari.**  
Amaia Astobiza: Etxerik etxeko langileen zerbitzua azpikontratatu dago gaur egun. Udalak Urgatzi izeneko enpresa kontratatzen du zerbitzua emateko. Horren arabera, Zornotzako Udalak 32 euro ordaintzen dizkio enpresari etxeko beharginek lan egiten duten ordu bakoitzeko. Trukean, etxeko langileek hamazazpi euro jasotzen dituzte lan eginiko ordu bakoitzeko. Bidean geratzen diren hamabost euroetan gizarte segurantzaren eta halakoak sartuta egongo dira, bai, baina marjina handia da. Hor enpresaren irabaziak daude. **A.I.V.:** Urgatzi enpresarentzat lan egiten dugu, baina kontratazioa aldatu eta enpresa onuraduna beste bat izango balitz ere, lanean jarraituko genuke. Udalaren kontratazio orrietan subrogazioa dago sartuta, eta, horrenbestez, lizitazioa enpre-

sa batek ala beste batek irabazi, plantillan mantenduko gintuzkete.

**“Multizereginak egiten ditugu: higiene lanetan lagundu, kozinatu, etxea garbitu eta errekaduak egin”**

**Zenbat ordu lan egiten duzue?**

**A.I.V.:** Nik, adibidez, gaur egun hiru pertsonarentzat lan egiten dut. 08:00etan sartu eta 11:45ak arte lan egiten dut.

**I.L.G.:** Nik ordu bi eta 45 minutu lan egiten dut. Orain gutxira arte lau ordu egiten egon naiz. Ordu bi inguru goizez egiten nituen, eta beste bi arratsalde. Edozelan ere, lau orduei dagokien ordainsaria jasotzen dugu.

**A.A.:** Eta hor galdera bat sortzen da. Zergaitik ez dira betetzen eskaini beharreko ordu guztiak? Beharrezin ez dagoelako ala zerbitzua eskatzaile guztiengana heldu ezinda dabilelako? Askotan dugu

zalantza hori. Gure ustez, udalak lan proaktiboago bat egin beharko luke, Herritarren Arreta Zerbitzura bertaratzeko aukerarik ez dutenak eta zerbitzua dagoenik ere ez dakitenak detektatzen. Zornotzara bizitzera etorri berriek badakite zein zerbitzu dauden herrian? Hona etorri eta bizimodua bertan garatu dutenek ere zerbitzu hau beharko dute etorkizunean. Horrenbestez, ikusgarritasunaz gabiltzanean, horri buruz gabiltza, zerbitzuaren ikusgaitasunari buruz. Gure eskaria zerbitzua publikatzea, langileak udaleko langile izatea eta horren arabera baldintzak ezartzea da. Gainera, era horretan, etxeko langile modura euren kontura lan egiten duten askok sarbidea izango lukete zerbitzu horretara.

**Euren kontura lan egiten duten etxeko langileak aipatu dituzue. Kasurik gehienetan, emakume migratzaile eta arrazalatuak betetzen dituzte lan horiek.**

**A.A.:** Bai. Eta argi dagoena da guk pertsona horiek behar ditugula. Zornotzara etorri dira bizitzera, hemen lan egiten dute, Zornotzako herritarrak dira. Eta gainerako enprekin egiten den moduan, haien lan baldintza duinak bermatu behar dira. Bestalde, erresidentzietako errealitatean esku hartzea eta etxebizitza komunitarioak sortzen hastea eskatzen dugu. Azken hauen adibide modura Usurbil edo Hernani ipini daitezke. Parte hartze prozesu bat hasita, adinekoekin, haien seme-alabekin, herritarrekin eta mugimendu feministagaz eredu bat lantzen hasi gaitezke, nahiak eta beharrezinak identifikatuta.

**Baduzue beharrezin loturiko estatistikarik?**

**A.A.:** Zornotzako 65 urtetik gorako 4.000 biztanle dago. Aurreikuspenen arabera, hamar urte barru 5.500 izango dira. Eta hogeitau urte barru, 7.000. Diagnostikoa egin eta errealitate hori kontuan hartzeko eskatzen dugu. Gizartea zahartzen dabil, Zornotzako ere bai. Badira datu gehiago. 85 urte baino gehiago izan eta bakarrik bizi direnak 280 bat dira gaur egun. 30 urte barru, 85 urte baino gehiago dituztenen kopurua 500era heldu daiteke. Zaintzarako beharrezina geroago eta handiagoa izango da.

**A.I.V.:** Bai, gure zereginetan ere igartzen dugu hori. Nik etxeko lanak amaitu eta gero, artatzen dudana batek baino gehiagok beragaz berba egiteko eta berari konpainia egiteko eskatzen didate. "Ana, jesarri zaitez, dena ez da garbitzea izango eta", esan izan didate.

**Bakardadean bizi den jende asko dago?**

**I.L.G.:** Askok, bai. Badira familiak oso ondo zainduriko herritarrak, etengabeko hartu-emana dutenak. Baina badaude bestelako kasuak ere bai. Gure zerbitzua ematen

diegun asko gu noiz helduko zain egoten dira. "Hartuko duzu kafe bat?", galdetzen dizute. Edo, "honako hau eskaini diezazuket. Beste honako hau ere badut", esango dizute. Konpainia eskatzen dizute. Bakardadea gaixotasun nagusienetarikoa izan daiteke 2024-2025 bueltan. **Gaur-gaurkoz, zenbat herritarri eskaintzen diozue zerbitzua?**  
**A.I.V.:** Zornotzako 73 herritarri. Kopurua jaitsi egin da azken urteotan. Koronabirusak izango zuen bere eragina horretan. 100 herritar baino gehiago artatu izan ditugu iraganean.  
**Eta zenbatek eskaintzen duzue zerbitzua?**  
**A.I.V.:** 21 gara.  
**I.L.G.:** Lanorduetan murrizketak izan ditugu eta azken zortzi urteotan gutxitu egin da gure eroste ahalmena. Egunean lau ordu baino gutxiago lan egin arren, lau orduri dagokion ordainsaria jasotzen dugu, hori hala da, baina nik neuk behintzat lanaldi oso bat gura dut. Eta oraingo egoeran ezin dut beste lanaldi erdi bat topatu. Izan ere, ordu bi lan eginda goizean, eta beste bi arratsaldean, ezin dut beste lanaldi bat txertatu.  
**A.A.:** Bai. Eta Itxasok aipatzen duenak ederto islatzen du prekaritatea. Soldata eta ordutegi horiekin, ezin da bizimodua

atera. Baina, jakina, udalak suposatzen du langileen etxeetan aparteko soldata duin bat egongo dela: senarrarena. Aurrera barik, atzera goaz.  
**21 langile horietatik zenbat zarete emakumeak?**  
**I.L.G.:** Den-denak gara emakumeak! Badirudi zaintzaren rola emakumeon bizkar gainean ezarri dela.  
**Beraz, argi dago. Gaur kalera irtengo duzue aldarrikatzera. Zelan biziko duzue Martxoaren 8a?**  
**I.L.G.:** Neuri egokitu zait manifestazio amaieran berba egitea. Eta, alde horretatik, apur bat urduri egongo naiz. Bestalde, baikortasun handiagaz biziko dut. Etxerik etxeko arreta zerbitzua ezagutaraztea gura dut, jendeak horri buruz berba egitea.  
**A.I.V.:** Nik ez neukan Martxoaren 8ko manifestazioetara joateko ohiturarik. Baina aurtengo ia zokoaren modukoa bada, primerakoa izango da. Lan handia egin eta asko gozatu nuen.  
**A.A.:** Azaroaren 30eko greba feminista orokorrean landurikoak berretsiko ditugu. Manifestazioa izango dugu, musika ere bai... Izan ere, ez dugu mobilizazioa amaitu eta nor bere etxera joan gura. Elkarregaz egon gura dugu, dantzatu, eta barre egin.

## Zornotzako 1.205 emakume kirolari omenduko dituzte Marixelarre sarietan

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako Udalak herriko kirol taldeetako emakumeek eginiko lana aitortuko du Marixelarre Sarietan aurtengo edizioan. 1.205 emakume zornotzar omenduko dituzte guztira. Udalerrian 30 kirol taldeetik gora dago eta talde bakoitzeko hiru kidek jasoko dituzte sariak, gainerako taldekideen izenean. Ainhoa Salterain alkateak azaldu duenez, kirol taldeetan dagoen

"aniztasuna eta partaidetza" sustatu gura dituzte ekitaldiagaz. Era berean, alkateak azpimarratu du emakumeek lorturiko "inpaktua eta eginiko lorpenak" goraipatuko dituztela. Aitortza ekitaldia martxoaren 9an egingo dute, Euskal Herriko Emakume Nekazarien eta Artisauen Azoka egunean, 12:30ean, Zelaieta parkean.

Martxoaren 8ari loturiko ekitaldiak bihar amaituko dira Zor-

notzan. Gaur, adierazpen instituzionala, ume eta gazteei begirako ekintzak eta mobilizazioak izango dituzte. Jon Artabe zinegotziak azaldu du "borroka feministaren garrantzia azpimarratzeko helburuz" prestaturiko ekitaldiak direla. Alde horretatik, Artabek egitasmoetan parte hartzeri deitu ditu herritarrak. Egitaraua eta ordutegiak [anboto.org](http://anboto.org) atarian kontsultatu daitezke.



Alicia Hernandez, Jon Artabe eta Ainhoa Salterain.



**MOBILIZAZIOAK • EKAITZ HERRERA**

Gaurko mobilizazioetan, mugimendu feministak azaroaren 30ean eginiko greba orokorra hartuko du aldarrikapenak kaleratzeko

oinarri modura, "zaintza krisi larri bati aurre egin" eta "sistema eraldatzeko" asmoz. "Egoera aztertuko duten diagnostikoak eta konponbide zehatzak" eskatzen

## Mugimendu feministak eskualdeko kaleak hartuko ditu gaurko mobilizazioetan

Azaroaren 30eko greba orokorrean egin zuen moduan, mugimendu feministak zaintzaren problematika kaleratuko du gaur. "Besteak beste, herrietako eragile soziosindikalekin batera zaintza-mahaiak eratzeko exijituko diegu Durangoko eta Zornotzako udalei", esan dute

jarraituko dute instituzioetan. Durangon eta Zornotzan, adibidez, zaintza mahaiak eratzeko eskatuko diete udalei. "Ezinbestekoa da beste era bateko zaintza kultura bat pentsatzea eta eraikitzea, genero sistema, lanaren banaketa sexual eta arrazista irauliko dituen, Zaintza legeaz ulertzen duguna eta gizartean ematen diogun lekua



erlaldatu gura dugu. Zaintzagazko erantzukizuna eta konpromisoa eskatzen ditugu", azaldu dute.

Honako hauek dira herririk herri antolaturiko mobilizazioak: Durangon manifestazioa, 19:00etan, Andra Maritik hasita; Zaldibarren 19:00etan, udaletxeko plazatik; Iurretan 18:30ean, Askondotik; Elorri-

19:00etan, plazan; Zornotzan 19:30ean, herriko plazatik; Berrizen 19:00etan, udaletxetik plazara; Abadiñon 19:00etan, Laboral Kutxatik hasita. Otxandion 19:30ean, ekitaldia Andikonan. Durangaldeko Itaiak manifestazioa egingo du Durangon, 18:30ean, Santa Ana plazatik hasita.



### SAN ROKE BARRIA



2. fasea salgai

2 logela, **garajea barne**  
235.000 €<sup>-TIK</sup><sub>+BEZ</sub>

3 logela, **garajea barne**  
295.000 €<sup>-TIK</sup><sub>+BEZ</sub>

Erreserbatu hitzordua hemen:  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**SALMENTA BULEGOA**  
Astxiki Kalea, 1. Durango

946 462 041

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa

# Umorea eta tontokeria aldarrikatzeko sei obra, Tontolapiko Egunaren edizio berrian

Martxoaren 29an egingo da, Aurora Abasolo parkean. Ikuskizunak doan izango dira



Jardunaldia Ganso & Cia konpainiak, Durangoko Udalak eta San Agustin Kulturgunek antolatu dute.

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Tontokeria aldarrikatuko dute, eta gauzak txarto zelan egin daitezkeen umorez erakutsi. Tontolapiko Eguna bueltan da, durangarren eta bisitarien gozamenerako. Hirugarren edizio honetan, nazioarteko eta Euskal Herriko sei antzerki konpainia taularatuko dira Aurora Abasolo parkean. Tartean, etxeokak, Ganso & Cia konpainiak bere obra berria aurrestreinatuko du-eta bertan: *Welcome & Sorry*. "Teatroari eginiko parodia bat da. Clown aktoreek *Hamlet* obra jokatu beharko dute, baina, pentsatzekoa denez, oso gatx izango dute obra

gauzatzea, dena aldrebestu eta desastre bat egiten amaituko dutelako", azaldu du Cecilia Paganini konpainiako kideak.

Gainerako bost obrak Durangaldetik kanpokoak izango dira. Tartean egongo dira Oscar Terol umoregile donostiarraren *Mundos para los ojos* lana, eta sustraiak Araban eta Katalunian dituen Koilara konpainiaren *Tolondrados* obra. Bestalde, Frantziatik eta Britainiatik etorritako taldeak ere arituko dira ikusleen artean barre algarak sustatzen. Alde horretatik, Gorka Ganso antzezleak gorazarre egin die clown ikuskizunei: "Eszena-

tzeko moduak ez du zertan beti inteligentea izan. Tontokeriak egitea gatxa da, ez dago-eta efektu berezi handirik", gaineratu du Gansok.

Mireia Elkoroiribe alkateak "kultura umoretsuaren funtsezko pieza" modura aurkeztu du jada errotzen hasitako Tontolapiko Eguna. Horrez gainera, Ganso & Cia konpainiak eta San Agustin kulturgunek hamasei urtean eginiko lankidetzara goraipatu du. Tontolapiko Egunean janari furgonetak egongo dira jan-edana eskaintzen. Eguraldi txarra egiten badu, Landako Gunean egingo dituzte ekintza guztiak.



Durangoko Udaleko eta Durango Lagunkoiako ordezkariak aurkezpenean.

## Hiru urteko ekintza plana, herri inklusibo baten bila Durango Lagunkoiaren bidez

Durango Lagunkoia egitasmoak hamar lan ildo jasotzen ditu herria atseginago bihurtzeko adinekoentzat

### DURANGO • J. DERTEANO

Durango Lagunkoia egitasmoak hamarkada bat baino gehiago darama lanean Durango atseginago izan dadin adinekoentzat. Asteon, datozen hiru urteei begirako ekintza plana aurkeztu dute. Adinekoekin batzartu dira eta prozesu parte hartzaileen bitartez jasoriko ekarpen anitzak hamar lan ildotan batu dituzte. "Horixe izango da gure ibilbide-orria datozen hiru urteetan", adierazi zuten egitasmo kideek martitzeneko aurkezpenean.

Lan ildoak bost esparrutan banatu dituzte. Espazio zabalen esparruak hiru puntu ditu: adi-

nekoen zentroko eraikinaren irisgarritasuna hobetzea, edukiontzia irisgarriago egitea eta belaunaldien arteko bizikidetzara hobetzea espazio publikoetan. Mugikortasunari dagokionez, autobusen irisgarritasuna eta bidegorrien seinaleak hobetzea dira lan ildoak. Komunikazioaren esparruan, kolektiboarentzat informazio erabilgarria duten panel fisikoak ipintzea gura dute, eta auzoetan liburutegiko sukurtsal txikiak sortu gura dituzte, adinekoekin erabiltzeko modukoak. Bestalde, osasunaren arloko beharrik jaso, eta Osakidetzako arduradunei helaraziko dizkiete.

## First Lego League txapelketan Albaina akademiako ikasleak saritu dituzte

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Albaina informatika akademiako ikasle talde bat Donostian izan zen joan zen zapatuan, First Lego League lehiaketan parte hartzen; hau da, Lego piezekin muntaturiko roboten bitartez lehiaketan markaturiko zeregina eta erronkak gauzatzen.

Etorkizun Oparoko Gazteen saria irabazi zuten bertan. "Erronkan parte hartzen dugun lehenengo aldia da. Ikasleek lan handia egin dute eta oso pozik gaude lorturikoagaz", azaldu du Bea Albainak, izen bereko akademiako arduradunak. Oihane Riesco umeetariko baten ama da, eta, azaldu duenez,

epaimahaiak hamabost misio ipintzen ditu. "Ikasleek robota hartu eta programazio lanak egiten dituzte gailuak hamabost misio horiek bete ditzan. Minutu bi eta erdiko denbora izaten dute hamabost misioak gauzatzeko", zehaztu du. "Azkenik, balioen puntuazioa dago. Lehiaketa honetan asko baloratzen dira ikasleen balioak: errespetua, elkar laguntzea...", gaineratu du Bea Albaina irakasleak.



10etik 14 urtera bitarteko bederazi ikasleek Etorkizun Oparoko Gazteen saria irabazi zuten.

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2024ko urtarrilaren 12a  
22. urtea - 963. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Bizkaian Emakumeak Dantzari ekitaldia ospatuko dute zapatuan, Durangon

**DURANGO • J.D.**

Tronperri eta Txoritxu-Alai dantza taldeek Bizkaian Emakumeak Dantzari ekitaldia antolatu dute zapatarako. Aurtengoa zortzigarren edizioa izango da. Ekitaldiaren helburu nagusia emakumeen Bizkaiko dantzak ezagutaraztea eta transmisioa ez etetea dira. Bizkaiko zazpi taldek parte hartuko dute ekitaldian. Eurretari hiru Durangokoak dira: Tronperri, Txoritxu-Alai eta Kriskitin. Gainerako laurak Bermeoko, Algortako, Sestaoko eta Errepelegako taldeak dira. 18:00etan kalejiran irtingo dira, merkatu plaza-tik Andra Mariko elizpera. Dantza ekitaldia 18:30ean egingo dute, eta, azkenik, 20:00-20:30 inguruan, erromeria egongo da elizpean.

## Zornotzan zabalik dago Gizarte Larrialdiari loturiko laguntzak eskatzeko epea

**ZORNOTZA • E.H.**

Zornotzako Udalak Gizarte Larrialdietarako laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Laguntzak baliabide ekonomiko urriak dituzten herritarrei zuzenduta daude, gastu espezifikoiei, arrunteei eta aurreikusitako egoerei aurre egin ahal izateko. Tartean daude etxebizitzari loturiko gastuak (alokairua, kredituen interesak, elektrizitatea, ura, hondakinen kudeaketa, komunitate gastuak, funtsezko altzariak eta oinarrizko azpiegiturak konponetzea), etxeko kideen oinarrizko beharrianak eta aipaturiko elementuei loturiko zorrak. Eskariak azaroaren 15era arte egin daitezke, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Pablo Gonzalez kazetariak urte bi baino gehiago daramatza preso Polonian. Hango inteligentzia zerbitzuek atxilotu zuten, 2022ko urtarrilaren 28an, Ukrainagaz mugakidea den Przemysl hirian. Gonzalez Ukrainako inbasioaren berri emateko lanetan zebilen, kazetari. Inteligentzia zerbitzuek Errusiarentzat espioitza lanak egitea egotzi diete.

**Zelan dago Pablo?**

Ditudan azkenengo berriak orain aste bikoak dira, Espainiako eta Poloniako abokatuak Pablari eginko bisitakoak. Abokatuak animoz eta osasunez ondo topatu zuten. Baina, jakina, kartzelan edo kalean animoz ondo egotea ez dira gauza bera, ongizatea ez delako metrika berdinez neurten barruan edo kanpoan. Eusten dabil, kirola egiten du, eta dituen aukeren artean ondo jaten ahalegintzen da.

**Zein puntutan dago auzia?**

Otsailaren erdialdean bere espetxealdia luzatzea erabaki zuten, beste hiru hilabeterako. Horrek esan gura du 27 hilabeteko espetxealdia beteko duela han, gutxienez; hori seguru. Beste guztiak berdin jarraitzen du. Ez dute bere kontrako kargurik aurkeztu, ez dute frogarik aurkeztu, eta ez daukagu epaiketa datarik. Daukagun segurtasun bakarra da hau atxiloteta arbitrario bat izan dela. Abokatuak ere ikusi du hori. Bere atxiloteta arrazoitzeko, oraintxe dabilta diligentsiak egiten, orain urte bi barik.

**Atxiloteta justifikatzeko, zein arrazoi dagoela esan dizuzte?**

Atxilotu zutenean, senarrak telefonoz deitu zidan. Zerbitzu sekretuek atxilotu zutela eta ondo zegoela esan zidan. Eta abokatuari deitzeko. Ez zioten utzi askoz gehiago esaten. Gero, Espainiako gobernuak Polonian duen kontsuletari batek deitu zidan, eta esan zidan ez zutela atxilotetaren inguruko informazio ofizialik. Hasierako hiru egunetan, Pablo bakar-bakarrik egon zen, babesik barik, abokaturik barik, atxilotetaren arrazoiak adierazi arte kontsulak ezin zuen eta auzian esku hartu. Poloniako Gai Berezietako



## “Pablaren atxiloteta politikoa da, auzi politikoa da Polonian”

Oihana Goiriena Pablo Gonzalez kazetariaren emaztea da. Asteon, Nañon euskara elkarteak antolatuta, berbaldia eman du Zornotzako Txiri-txiri tabernan, senarraren egoera azaltzeko

ministerioak handik egun batzuetara adierazi zigun zein zen arrazoa. Baina karguak zehaztu barik daude oraindik.

**Urte hauetan bietan izan duzu senarra bisitatzeko aukerarik?**

Bisita bi baino ezin izan ditut egin urte bian. Lehenengoa 2022ko azaroan izan zen, eta bigarrena iazko ekainean. Ez dugu telefonoz edo bideo-deien bitartez berba egiteko aukerarik. Abokatu bitartekaritzagaz baino ezin gara komunikatu. Azkenaldian, astean behin edo astean birritan izaten dute berba egiteko aukera. Dena dela, mezu laburrak baino ezin dituzte trukatu. Bestalde, posible dugu gutunez komunikatzea, baina mezuek zentsura igaro behar izaten dute. Gainera, eskutitzak hile bi berandu heltzen dira bere eskuetara.

**Hiru seme dituzue. Zelan bizi duzue egoera hau?**

Egoera ezjakintasun handiagaz bizi dugu, tristezia eta hutsune handiagaz. Hiru seme ditugu. Nerabea da bat, nerabea izateko bidean dago erdikoa eta txikiagoa bestea. Hazten dabilta, eta, zelanbait esateko, haien eredu maskulinoa falta dute. Alde horretatik, egoera gogorra da.

**Hemendik aurrera, zein bideri jarraituko diozue?**

Pablaren auzia gai politikoa da Polonian, atxiloteta politikoa. Pablaren kasua beste gauza asko justifikatzeko erabiltzen dabilta: haien zerbitzu sekretuak gorai-patzeko, gastu militarren igoe-justifikatzeko. Besteak beste, Errusiak inbaditu egingo dituen ideia darabilte, gastu militarra igotzeko arrazoi modura. Eta hemen ere hasi gara halakoak entzuten.

Alemanian ere ikusi dugu hori. Auzia marko horretan kokatzen dut. Orduan, honi guzti honi arlo politikotik heldu behar zaio, presio politikoa egin behar da. Eta horretarako ahalmena Europar Batasunak eta Espainiako Kanpo Harremanetarako Ministerioak daukate. "Honaino" moduko bat esan behar dute, arre edo iso. Izan ere, Poloniako legediaren arabera, behin-behineko espetxealdiek ez dute iraupen mugarik. Iraupena mugatuta balego, karguak aurkeztu beharko lituzkete. Epaietarako data ipintzea gura dugu, prozesu garbi bat izatea, eta bien bitartean baldintzapean edo bermepan aske uztea. Eta hori ezin bada, espetxealdia hemen egitea, hemengo kartzela batean, familiarengandik gertu. Bisitatu ahal izateko eta telefonoz berba egiteko.

### GOI-MAILA:

Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea  
Administrazioa eta finantzak  
Web aplikazioen garapena  
Automatizazioa eta robotika industriala  
Mekatronika industriala  
Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa  
Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

### ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

Eman izena!

10: LANBIDE  
30 HEZIKETA

Ate irekiak  
Martxoak 16

11: BATXI  
00 LERGOA

### ERDI-MAILA:

Mantentze-lan elektromekanikoa  
Beroa sortzeko instalazioak  
Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria  
Elikagaiak elaboratzeko teknikaria

Markina-Xemein  
94 616 90 02 | info@leartik.eus

lea artibai  
ikastetxea

LEONARDO RODRIGUEZ  
IKASTETXEA  
HETEL  
IKASGILTZA



Gurutz Sainz de Murieta eta Josune Mazorriaga.

## “Ea orain, herritar guztion indarragaz, eguneko zentroa errealitate bihurtzen den”

'Bizi duin, eguneko zentroa orain' lelopean, sinadurak eta atxikimenduak batzen dabiltza Elorrioren

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Elorrioren eskari historikoa da Eguneko Zentroarena. Herritarrek eta gobernu taldeak zentroa ezinbestean behar dela ikusten dute, baina Bizkaiko Foru Aldundiak ez. Herritarrek "borrokatzeko" prest daude eta sinadura bilketa bat hasi dute. ANBOTOK Josune Mazorriaga erizainagaz eta Gurutz Sainz de Murieta pentsiodunagaz berba egin du.

**'Bizi duin, eguneko zentroa orain' kanpaina martxan ipini duzue. Zertan datza kanpaina?**

**Josune Mazorriaga:** Kontua da pentsiodunek, bere garaian, kanpaina bat egin zutela. Sinadurak batu, eta Aldundian entregatu zituzten. Udaletik ere joan izan dira datu guztiak eramatera, baina ezezko borobilak jaso dituzte. Eta herritarrok konturatu gara mugitu egin behar dugula, orain arte

Aldundiak ez duelako ezertxo ere egin zentroa egotearen alde. Eta, gure iritziz, gure herriak ezinbestean behar du halako zentro bat. Bizkai guztian 7.000 biztanletik gorako herri bi baino ez daude eguneko zentrorik barik, eta Elorri da horietariko bat.

**Orain arte, batez ere pentsiodunak mugitu dira zentroaren aldarrikapenari dagokionez. Gurutz, zuentzat garrantzitsua izango da herritarrek ere mugitzen hastea.**

**Gurutz Sainz de Murieta:** Guretzat oso garrantzitsua da herritarrek gure eskari honez bat egitea. Askok uste dute eguneko zentroa nagusien kontua dela, baina ez da horrela. Guk denbora daramagu gai honez. Guri eskerrak, udalak ikerketa bat egin eta herriko beharrianak aztertu zituen. Orain, guretzat, herritar talde hau mugitzea eta denok batera

borroka egitea oso garrantzitsua da. Denon indarragaz lortuko dugu eguneko zentroa.

**Sinadura bilketa hasi duzue. Zelan doa?**

**J.M.:** Hilabete inguru iraungo duen kanpaina hasi dugu eta hainbat sinadura batu dugu dagoeneko. Herri mailako sinadura bilketa da, herriko aldarrikapen bat delako. Sinadurak kalean batzen ditugu, baina Internetez ere badago sinatzeko aukera. Horrez gainera, argazkiak ateratzen ere bagabiltza, herritarren atxikimena jasotzeko.

**Behin sinadurak batuta, zer asmo duzue?**

**J.M.:** Berrero ere Aldundira joan eta hango atean joko dugu. Ea kontzientzia hartzen duten eta herriaren beharrian hau ikusten duten. Baina hori zehazteko dugu oraindino. Lehenengo helburua herria sentibilizatzea da. Herritarrei dei egiten diegu kanpainara atxikitzeko, ea denon indarragaz orain eguneko zentroa errealitate bihurtzen den.

**G.S.M.:** Horregaitik, gure eskaria sinatzeko eta argazkiak ateratzeko gonbitea egiten diegu herritarrei. Denon indarra beharko dugu.



Atxondoko jubilatuen taberna.

## Atxondoko Udalak martxan ipini du jubilatuen taberna lizitatzeko prozesua

"Hainbat zailtasun" gainditu ondoren, prozedimendua martxan dela azaldu du Eneritz Agirre alkateak

**ATXONDO • JONE GUENETXEA**

Atxondoko Udalak prentsa ohar batean azaldu duenez, pausoak ematen hasi dira jubilatuen taberna lizitazioa atera ahal izateko. Tramite hori egiten den bitartean, Atxondoko jubilatuen elkarteak lokal hori erabili ahal izango du datorren astetik aurrera, orain arte udaleko beste espazio batzuk erabili izan dituzten legez. Taberna zabaltzeko izan dituzten arazoak gaindituta, martxan da lizitazio prozesua. "Lanean ibili gara jubilatuen elkartearen es-

kaerari erantzuna emateko. Hainbat zailtasun gainditu ondoren,

**Tramite hori egiten den bitartean, Atxondoko jubilatuen elkarteak lokal hori erabili dezake**

azkenean lortu dugu jubilatuen tabernaren zerbitzua berreskuratzea eta martxan ipintzea", azaldu du Eneritz Agirre Atxondoko alkateak.

## Abadiñoako Udalak enpresa bat kontratatu du AHTaren obren jarraipena egiteko

Abadiñoako Udaletik jakinarazi dute langile adituek herritarren kontsultak jaso eta horiei erantzungo dietela

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiñoako Udalak kanpoko enpresa bat kontratatu du AHTaren obren jarraipena egin eta betebeharrak eta eskakizun guztiak "zorrotz" betetzen direla ikuskatzeko. Jarraipen hori egiteaz gainera, langile adituek herritarren kontsultak jaso eta horiei erantzungo dietela argitu du udalak. Horretarako, hartu-emanerako telefona eta helbide elektro-

nikoa ipini dituzte, eta hilean behin arreta aurrez aurre eman-goto dute udal lokaletan.

"Proiektu horrek inpaktu handia du ikuspuntu askotatik, eta Abadiñoako hainbat eremutan

**Herritarren zalantzak argitzeko telefono zenbakia eta helbide elektronikoa jarri dituzte**

dituen eraginak larriak dira. Udalak arduraz jokatu eta gertutik jarraitu behar du, etengabeko informazioa izateko eta landa-uzo horietan, sarbideetan eta pertsonengan aurrez ezarritakoa baino eragin negatibo handiagoa izango luketen desbideratzeak saihesteko", adierazi du Mikel Urrutia Abadiñoako alkateak.

Aste honetan bilera zabala egin dute herritarrei zerbitzu honen berri emateko eta zalantzak argitzeko.



Mendiola auzoan egiten dabiltzan lanetako argazkiak.

## BERDEAGO AZOKA 2024

# Berdeago Azokak, Iraunkortasunaren Euskal Azokak, 10 urte betetzen ditu

Berdeago Azokaren 10. urteurrenean, Durangok azokaren bi kategoriak asteburu bakarrean batzen dituen formatu berri baten aldeko apustua egin du: Nature eta Energy. Honekin, bi publiko motak biltzea lortzen du, iraunkortasunaren esparruko sektore guztiei garrantzi handiagoa emateko. “Bi azoken bat-egitearekin bertaratzea areagotzea bilatzen dugu eta, horrela, erakusketarien artean sinergia gehiago sortzea”, gaineratu du Diego Rubiok, konpainia antolatzailearen zuzendari nagusiak.

Datorren martxoaren 22, 23 eta 24an, 60 erakusketari inguru izango dira Durangoko Landako Gunean. Urte hauetan, Berdeago Azoka euskal gizartearen jasagarritasunaren, ingurumenaren eta gizarte-sentsibi-

lizazioaren arloan erreferentziako azoka bilakatu da. “Penintsula oso-ko enpresak ditugu, Berdeago Azokan egotea ezinbesteko ekitaldia iruditzen zaienak”.

### Bi mundu elkartuta

Azokak bi kategoria ditu: Berdeago Energy, eraginkortasun energetikoan, ingurumen-berrikuntzan, mugikortasun iraunkorrean eta ekonomia zirkularrean ardaztua dagoena, eta Berdeago Nature, kontsumo arduratsuan zentratua elikadura, moda, etxea, osasuna eta ongizate iraunkorra gaien inguruan.

Bi kategoriak erakusketari izango dira azokan, eta bisitariek hainbat alorretako produktuez gozatu ahal izango dute, guztiak iraunkortasunaren aterkipean.



Euskadiko enpresa eta profesionalak azokan izango dira erakunde publikoentzat eraginkortasun energetikoarekin, mugikortasun jasagarriarekin, birgaitze energetikoarekin, bioeraikuntzarekin eta hondakinen kudeaketarekin lotutako gai interesgarriak eztabaidatzeko.



### Doako azoka

Azokara bertaratuko direnek Durangoko Landako Gunean hiru egunean zehar egingo diren ekitaldiez dohai-rik gozatu ahal izango dute. Azoka honen babesleen artean, Bizkaiko Foru Aldundia, Ihobe, Eusko Jurlaritza, Durangoko Udala, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Eroski daude. “Azoka publikoarentzat doakoa izatea Berdeago Azokaren balioekin benetan konprometituta dauden entitate hauen laguntzari esker da”.

### Era guztietako jarduerak

Azokara doazen pertsonek Berdeago Azokak egingo dituen zozketetan parte hartu ahal izango dute, bisitariari zein erakusketari onura eman- go diotenak.

Horrez gain, laster ezagutaraziko den Berdeago programak erakusketarien hitzaldiak, aurkezpenak eta tailerrak izango ditu. Asteburuan zehar Durangoko Landako Gunera bertaratuko direnek honetaz eta askoz gehi- goz gozatzeko aukera izango dute!

# Otxandioko kultur etxeko ateetan sarraila automatikoak ipini dituzte

Orain arte hainbat eraikin publikotan egin duen moduan, Otxandioko Udalak sarraila automatikoak ipini ditu kultur etxeko sarrera nagusian eta lehenengo pisuko geletan



Otxandioko kultur etxea, plaza nagusiaren ondoan.

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandioko Udalak sarraila automatikoak ipini ditu kultur etxean. Beraz, aurrerantzean, giltzak barik erabiltzaileek txartelak erabiliko dituzte eraikinean sartzeko. Horrela, kultur etxeak ere beste eraikin publiko batzuetan ezarritako sistemari jarraituko dio. Aldaketa egiteko lanek 6.668 euroko aurrekontua izan dutela zehaztu dute udal arduradunek.

Hain zuzen ere, kultur etxeko sarrera nagusian eta lehenengo pisuko gela guztietako ateetan ipini dute txartel bidezko sarrera automatikoa. Lehenengo pisuan hainbat ekimen egiten da, eta, arduradunen esanetan, kultur etxea bera, musika gelak, batzar aretoa eta ikasketa gela herritarrei "eskuragarriago" ipintzeko helburuagaz egin dute aldaketa hori.

Beraz, aurrerantzean, aipaturiko gela horiek erabili gura dituzten herritarrek txartela aktibatu beharko dute eskaera egiterakoan, kultur etxea dagokien ordutegian erabiltzeko.



Bilboko Club Deportivo pilotalekuan egin zuten ekitaldia.

## 40 urtez federatuta egoniko mendizaleak omendu dituzte

Euskadiko Mendi Federazioaren urrezko intsignia jaso duten mendizaleen artean zenbait otxandiar dago

**OTXANDIO • J.D.**

Euskadiko Mendi Federazioak 100 urte egin ditu aurten eta ekitaldi sorta antolatu du mendurrena behar den moduan ospatzeko. Esaterako, otsail amaieran Bilboko Club Deportivo pilotalekuan eginiko ekitaldian, gutxienez 40 urtez jarraian federatuta egon diren mendiza-

leak omendu zituzten. Bertan, Otxandioko Mirugain Mendigoizale Elkarteko zenbait kide izan zen: Juan Cruz Axpe, Luis Mari Garmendia, Jose Miguel Urrejola, Ramon Intxausti, Javier Garate eta Tomas Agirre. Euren lorpenagaitik, denek urrezko intsignia jaso zuten federazioko presidentearen eskutik.

## Mallabiko Ez Esan! lehiaketako otsaileko irabazlea iragarri dute

Zortzi lagunek asmatu zituzten otsaileko bost galderak

**MALLABIA • J.D.**

Mallabiko Berbalagunek eta udalak Mallabiari buruzko Ez Esan! galdera-erantzunen jokoa hasi zuten otsailean. Zortzi lagunek asmatu zituzten lehiaketako bost galderak, eta, euren artean zozketa eginda, Nahia Unamuno izan da otsaileko irabazlea. Berak jasoko du hilabete horretako oparia. Zozketa bidez beste izen bat ere aukeratu zuten: Ibaia Azagurre. Izan ere, maiatz-ekain inguruan lehiaketari kolofioa ipiniko dion gala bat egingo dute. Bertan, bikoteka lehiatuko dira. Beraz,

gala horretako bikote bat Nahia Unamunok eta Ibaia Azagurrek osatuko dute.

Martxoko bost galderak datoren astelehenean jakinaraziko dituztela aurreratu dute antolatzaileek. Horrela, hilerik hile, azken galarako bikoteak aukeratzeko joango dira galdera denak asmatzen dituzten artean. Lehiaketaren helburuak euskara sustatzea eta Mallabiko kontuak ezagutaraztea dira. Galderek Mallabia dute ardatz; hau da, herriko historiari, kulturari, kirolari, historiari eta abarri buruzkoak dira.

## Gazte eta helduentzat klown ikuskizuna ikusgai Mallabian

**MALLABIA • J.D.**

Domeka honetan, martxoak 10, Oihulari Klown antzerki konpainiaren Pronoia ikuskizunagaz gozatzeko aukera dute Mallabiko ume nahiz helduek. Udaleko Berdintasun Sailak antolatu du ikuskizuna. Gaztelaniaz izango

da, Kontzejuzarrean, 12:30ean, eta sarrera doakoa da. Umorez eta klown jokoaren bitartez, Virginia Imazek hainbat gai jorratuko du bere saioan, hala nola sexismoa eta berdintasuna. Imazek Emakunde Saria irabazi zuen 2017an, urte askoan feminismoa sustatzen eginiko lanagaitik. Horrez gainera, Arabako Arte Eszenikoen Eskola Feministako sortzailetariko bat ere bada.



Mañariko pilotalekuan jokatuko da txapelketa.

## Mañarian martxan da pilota eta pala txapelketarako izen ematea

Herriko Tabernan egin daiteke, apirilaren 21era arte; finalak Albokan' Rolla jaialdian jokatuko dira, ekainean

**MAÑARIA • J.D.**

Kafraga elkarteak eta Artatzagan Pilota Klubak Mañariko Pala eta Pilota Txapelketa antolatu dute. Esku pilotakoa gizonentzat, eta palakoa emakumeentzat. Txapelketa biak binakakoak dira eta bakoitzean zortzi bikoterentzako tokia dago. Izen ematea Herriko Tabernan egin daiteke, apirilaren

21era arte. Kanporaketak maiatzaren 18ko eta 25eko zapatuetan jokatuko dituzte. Sailkatuek ekainaren 1ean jokatuko dituzte finalerdiak. Eta final biak Albokan 'Rolla jaialdiaren barruan izango dira, ekainaren 8an. Jaialdiak 16:30ean hasiko dira. Partiduetan musika eta taberna egongo dira, antolatzaileen esanetan.

## Izurtzan musikagaz eta pintxopoteoagaz egingo diote ongietorria Korrikari

**IZURTZA • J.D.**

Martxoaren 22an Korrika Izurtzatik igaroko da, aspaldiko partez. 22:30 inguruan sartuko da herrian, Durangotik, eta Mañarirantza joango da. Hamaika urte joan dira Korrika herritik pasatu zela. Orduan, baina, kontrako noranzkoan igaro zen. Korrikari harrera egiteko, ez da jai girorik faltako Izurtzan.


**Udala testigua partekatze prest dago; interesa duenak udalera jo dezake**

Herriko Tabernan pintxopoteoagaz egingo dute eta DJ batek musika ipiniko du. Bestelakoan, Izurtzako kilometro bat herriko elkartearen artean hartu dute, eta beste kilometro bat udalak erosi du. Udaletik esan dute euren testigua herritarrek ere eroan dezaketela, eta norbaiti lekukoa hartzeak ilusio berezia egiten badio, udalekoei lasai jakinarazteko.



# ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK

## Eskelak eta oroigarriak paperean




**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela

*Testua / olerkia*

Familiakoak



**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela

*Testua / olerkia*

Familiakoak

**Prezioa** 2x2 modulo

Paperean edo webgunean **75 €**  
**Anbotokideek 65 €**

Paperean + webgunean **115 €**  
**Anbotokideek 105 €**

**Prezioa** 3x2 modulo

Paperean edo webgunean **110 €**  
**Anbotokideek 100 €**

Paperean + webgunean **150 €**  
**Anbotokideek 130 €**

## Eskelak webgunean



ESKELA

**Izena  
Abizena Abizena**

DURANGO

2022ko maiatzaren  
30ean hil zen.



ESKELA

**Izena Abizena Abizena**

Testua /Olerkia

Durango, 2022ko maiatzaren 30ean

### Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.

**anboto**  
kide

## Anbotokideen txokoa

### MARTXOKO ZOZKETAK




**Mamuka,** umeentzako dantza ikuskizuna, Zornotza Aretoan. Martxoak 16an, 17:30etan.



**Mr. Bo** ikuskizuna, San Agustin Kulturgunean. Martxoak 17, 18:00etan.



**Iratxoak eta basoko sorginkeria** umeentzako antzerkia, Arriola Antzokian. Martxoak 17, 17:00etan.



**Xiberu tabernan** bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

### IRABAZLEAK

**The Cherry Boppers:** Javier Alberdi Navarro  
**Maria Blanco:** Carlos Fernandez Moreno

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Egin zaitetz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



## Zaldibarko rokodromoa arautzen duen ordenantzari ekarpenak egiteko aukera

Udalak webgunean ipini du araudia, herritarrek irakurri eta proposamenak egin ahal izateko



Zaldibarko rokodromoa.

#### ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Zaldibarko Udalak rokodromoaren ordenantza landu du. Zerbitzu honen erabilera arautzen duen ordenantza bere webgunean ipini du ([zaldibar.eus](http://zaldibar.eus)). Herritarrek eta erabiltzaileek araudi horri ekarpenak egitea da udalaren asmoa, prentsa oharrean

azaldu dutenez. "Rokodromoaren ordenantza erabiltzaileen iritzia kontuan hartuta landu dugun arren, webgunean ikusgai ipini dugu herritar guztien esku egoteko eta gura duenak ekarpenak egiteko", azaldu du Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateak. Proposamenen bat egin gura

duenak honako bideak jarraitu ditzake apirilaren 5a baino lehenago: udaletxean bertan aurrez aurre; udalaren webgunean bertan, [www.zaldibar.eus](http://www.zaldibar.eus) (kexak eta iradokizunak); eta elektronikoki egoitza elektronikokoan ([egoitza.zaldibar.eus](http://egoitza.zaldibar.eus)). Ondoren, osoko bilkuran eztabaidatuko dute.



Berrizburuko instalazioa.

## Hiru instalazio fotovoltaiko ipini dituzte Berrizen

Instalazio fotovoltaiko hauek Berrizburun, Matzako ur-biltegian eta kiroldegiko estalkian ipini dituzte

#### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak instalazio fotovoltaiko bana ipini du Berrizburun, Matzako ur-biltegian eta kiroldegiko estalkian. Udaletik jakinarazi dutenez, instalazio hauei eskerrak udal instalazioen autokontsumoa eta biltegitratzea ahalbidetuko da, energia garbia,

efizienteagoa eta ingurumena errespetatzen duena sortuz.

Bestalde, jarduketa honek Energiaren Euskal Erakundeak emaniko diru laguntza bat izan duela ere jakinarazi dute. Hiru instalazioek 395.384 euroko kostua izan dute, eta laguntzetatik 259.992 euro jaso dituzte.

## Zaldibarko Gaztetxearen 20. urteurrena ospatuko dute zapatuan

#### ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Aurten 20 urte bete dira Zaldibarko Gaztetxea sortu zela, eta, urteurren borobila ospatzeko, egun osoko jaia prestatu dute zapatarako. Umeentzako ekintzekin hasiko dute eguna, 11:00etan.

14:30erako herri bazkaria antolatu dute. Bazkariaren aurretik, jai giroa berotzeko, marianitada eta musika jartzaileak egongo dira. Pineapple Sweets taldeak izango du horren ardura, 13:00etan. Bazkalostea, bestalde, herriko musikariek girotuko dute.

#### Kontzertua

Hamarru elektrotzarangaren doinuek girotuko dute arratsaldea, 18:00etatik aurrera. Eta, gauerako, kontzertua antolatu dute karpan. Eire, Iskanbila, Disorders eta Gora Etorri musika taldeek joko dute, 21:00etan hasita. 03:00etatik aurrera, Xaukena Xauk, Kuku eta Kene DJek berotuko dute jai giroa Zaldibarko Gaztetxean.

# “Zintzoa eta errespetutsua izan naiz neure buruagaz, eta gainerakoekin ere bai”

Iñaki Totorikaguenak lurretako Udaleko alkate kargua utzi zuen atzo eginiko osoko bilkuran



Iñaki Totorikaguenak lurretako udaleko atarian, eguen goizean.

**25 urte egin dituzu udalean, 17 alkate. Hiru legegintzalditan gehien-go absolutua lortuta zoaz. Zelan baloratzen duzu hainbeste urtean udalgintzan eginiko bidea?**

Gauzak etxean erakutsi zidaten moduan egiten ahalegindu naiz: seriotasunez eta erantzukizunez. Zintzoa eta errespetutsua izan naiz nere buruagaz, eta gainerakoekin ere bai. Horregaz iurretarren babesa izan dut. Baina, gehiengoak aparte utzita, herritar guztien alkatea izaten ahalegindu naiz, botoa guri eman zein ez.

**Lan askoko urteak izan dira, dedikazio handikoak, eta, batez ere, gauzak ondo egiteko ilusioz beteak**

**Zure erabakiak harritu egin gaitu. Ondo pentsaturiko erabakia izan da, ezta? Kostatu zaizu erabaki hori hartzea?**

Bai, asko kostatu zait kargua uzteko erabakia hartzea, ilusioz beteriko proiektu asko baititugu martxan; puzzle bat erdi amaituta uztearen modukoa da. Baina argi neukan nire azken legegintzaldia izango zela, eta unerren batean erreleboari lekua utzi behar zitzaiola. Albo batera pauso bat emateko zirkunstantziak gertatu dira orain, eta oso argi dut udala eta gure herria esku onetan uzten ditudala, ilusio beragaz edo handiagagaz eta oso konprometitu dauden pertsonekin.

**Fase bati amaiera eman diozu. Hemendik aurrera zein asmo duzu? Esparru publikoari lotuta jarraituko dut beste proiektu batean eta beste erantzukizun batekin.**

**Agurtzeko egunak izan dira hauek. Zein sentazio daukazu?**

Alde batetik, pena apur bat dut. Azken batean, nire bizitzako 17 urte egin ditut alkate karguan, eta denbora horretan udala ia nire etxea izan da. Lan askoko urteak izan dira, dedikazio handikoak, eta, batez ere, gauzak ondo egiteko ilusioz beteak. Beste alde batetik, eskertuta noa, hainbeste urteko ibilbide honetan lagundu didaten pertsona guztiei eskertuta.

**IURRETA • J.G./A.B.**

**lurretako Udalean 25 urteko ibilbidea egin ondoren, Iñaki Totorikaguenak, 17 urtean alkate izan denak, etapa berri bati ekingo dio. Azken urteak gogorak izan direla aitortu du, maila profesionalean eta pertsonalean, “ustekabeko osasun arazo bat barne, bosgarren aldiz aurkeztea onartu nuenan espero ez nuena”, argitu duenez. Oskar Kokak hartuko du lekukoa, martxoaren 22an. Kargua utzi aurreko egunetan erantzun die Totorikaguenak ANBOTOren galderi.**

## Lurretako Udalak 2024ko aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasi du

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Lurretako Udalak 2024ko aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasi du. Herritarrek martxoaren 17ra arte dute aukera euren proposamena egiteko aurtengo aurrekontu proiektua hobetzeko. Ekarpene horiek batu ondoren, informazio guztia aztertu eta batzuk lehenetsiko dituzte. Aurten ere, udalak 50.000 euro ipini ditu aurrekontu parte hartzaileetarako.

Ekarpeneak aurrez aurre egin daitezke, herriko establezimenduetan eta udal bulego eta udal eraikinetan ipiniriko hautestontzien bitartez, jendeari arreta emateko ordutegietan. Bestalde, [www.iurreta.eus](http://www.iurreta.eus) webgunearen bitartez ere parte hartu daiteke.

## Garaiko Nagusien Elkartek 30. urteurrena ospatuko du zapatuan

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Garaiko Nagusien Elkartek 30. urteurrena ospatuko du zapatuan, eta omenaldia egingo zaie elkarte sortu zuten kideei. Otea Lora elkarte izango da ekitaldia, 12:00etan.

Nagusien Elkartek ekitaldi sorta prestatu du urteurrena ospatzeko. Hartara, elkartearen sortzaileei omenaldia egin ondoren, dantza emanaldia hasiko da, eta, jarraian, elkartearen logoa aurkeztuko dute. Bestalde, herria girotzeko asmoz egin duten kantutegia banatuko dute. Iruri Altzerrekak bertsoak kantatuko ditu eta janaria dastatuz amaituko dituzte ospakizunak. Ekintzak antolatzeke, Bizkaiko Aldundiaren eta Garaiko Udalaren babesa jaso dute.

## Kiroldegietako langileak greban, "hitzarmen duin baten alde"

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deitu dute greba egunetara. Hurrengoa bihar izango da, martxoak 9

**DURANGALDEA • M.Z.**

Bizkaiko kiroldegietako langileek borrokan jarraitzen dute "hitzarmen duin baten alde". Asteon, greba egin dute martxoaren 5ean, eta biharko ere, martxoak 9, beste greba egun batera deitu dute.

Sindikatuek azaldu dutenez, patronalaren proposamena ez da nahikoa, "sektorearentzat funtsezkoak diren aldarrikapen batzuk ez baititu jasotzen". ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deitu dute mobilizazioetara.



Berriz elkarretaratzea egin zuten, martitzean.

**Durangaldean Anboto banatu gura duzu?**

Eman izena eta gure lan poltsan sartuko zaitugu.

☎ 665 710 931 ✉ [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

**anboto**

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# Martxan da 8tik 12 urtera bitarteko ume sahararrak udan harreran hartzeko programa

Antolatzaileek azaldu dute 300 harrera familia behar direla Oporrak Bakean programan



Oporrak Bakean programaren aurkezpena.

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Oporrak Bakean programa bueltan da. Saharako errefuxiatuen aldeko eragileek adierazi dute 300 harrera familia behar direla Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Oporrak Bakean programan esku hartzen duten udalek, Saharako Euskadiko Ordezkaritzak, harrera elkarteak eta harrera familiek udari begirako kanpaina berria aurkeztu dute. Aurten, 300 harrera familia lortu gura dituzte 8tik12 urtera bitarteko ume sahararrak hartzeko. Egitas-

moaren bultzatzaileetarikoa bat Hamadako Izarrak elkarteak Garazi Etxebarria da. Eta, jakinarazi duenez, izurriaren aurreko kopuruetara heltzea dute helburu.

Río de Oro elkarteak eta Eloreko Lawjad elkarteak ere bat egin dute deialdiagaz. Oporrak Bakean programan parte hartze- ra deitu dituzte Durangaldeko familiak.

## Izen ematea

Interesa dutenek honako helbide eta telefono hauetara jo dezakete: [oporrakbakean@gmail.com](mailto:oporrakbakean@gmail.com) eta 658 751 359 (egitasmoaren Bizkaiko telefonoa), 676 108 794 (Río de Oro elkartearen telefonoa) edo [lajwadelorrio@gmail.com](mailto:lajwadelorrio@gmail.com) eta 688 611 488 (Lajwad elkartearen telefonoa).

## Politikan

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña  
EAJ



## Andragunea, 15 urte zurekin

Mugimendu feministak urteak zeramatzan emakumeontzako espazio bat eskatzen, eta 2005ean Berdintasun Batzordea osatu ostean, beste pertsona batzuekin batera, Udal Berdintasun Batzordea sortzeko prozesuari ekin zituen.

Garai hartako Udal Berdintasun Kontseiluan parte hartu zuten udal-ordezkarik politikoeak eta mugimendu feministako kideek Emakumeen Etxea gauzatzea lehentasun adostutzat zuten. Urte askoan elkarrekin lan egitearen ondorioz, 2009ko martxoaren 8an, gaur ezagutzen dugun Andragunea atek ireki zituen, Durangoko Emakumeon Etxeak atek ireki zituen.

Profil ezberdinetako emakumeek batzeko eta esperientziak partekatzeko espazio fisiko bat izatea lortu zen; andra guztiontzako Etxea ahalbidetu zen; andrazko ezberdinen arteko sororitate sustatuko zuen espazio seguru eta aitzindari bat martxan jarri zen.

Andragunea Pinondo Etxean hasi zuen bere ibilbidea eta gaur egun Lariz Dorrea den eraikin historikoan du bere egoitza.

Topagune aparta da feminismoa ezagutu eta haren arrama eta materia desberdinetan sakontzeko; han eskaintzen den ahalduzko eskolak emakumeon hazkunde pertsonal eta kolektiboan garatzen lagun gaitzake eta horren adibide dira ikasle izan eta irakasle izatera pasatu direnen kasuak.

Aurtengo M8rako aukeratutako leloa *Andragunea 15 urte zurekin!* da eta gurekin urte on askoz nahi dugulako, gogotsu ekingo diogu beharrezko espazio hau ahalduz, hauspotzen eta zaintzen. Haria ez da eten eta sarea ehuntzen jarraitzeko konpromisoa da gurea. Zorionak, urte on askotarako izan bedi.

## Durangaldea asteen

### Abadiñon hileko bigarren domekako azoka egingo dute martxoaren 10ean, Txanporta plazan

**ABADIÑO** | Hileko bigarren domekagaz batera, hemen da Abadiñoako azoka. Martxoaren 10ean, 10:30etik 14:00etara bitartean, askotariko produktuak eskuratzeko aukera egongo da Txanporta plazan egingo duten azokan. Samba Badago musika taldeak goiza girotuko du.

### Tetsuro Maedaren Atxondoko Txispa jatetxeak Repsol gidako 'Eguzkia' irabazi du

**ATXONDO** | Tetsuro Maedak sari berri bat gehitu dio bere ibilbide oparoari. Repsol Gida entzutetsuak ematen duen saria irabazi du, Repsolen Eguzkia. Maeda urte luzez aritu da Axpeko Etxebarri jatetxean lanean, Bittor Arginzonizegaz, eta 2023ko maiatzean bere jatetxea zabaldu zuen. Azaroan bere lehenengo Michelin izarra lortu zuen, eta orain Repsolen Eguzkia.



### Miguel Gila umorista eta aktorearen inguruko filma grabatzen dabilza Durangon

**DURANGO** | Durangoko Alde Zaharra Miguel Gila umorista eta aktoreari buruzko *¿Es el enemigo?* filmeko eszenatoki bihurtu da egunotan. Astelehenetik eguenera, pelikulako hainbat eszena grabatu dute Pecado Films eta Arcadia Motion ekoiztetxeen proiektuan.

Filmak Gilaren bizitza errepatatuko du. Durangoko grabazioa Gilak gerra zibilean bizi izandako kontuetan oinarrituta dago. Orduan, 17-18 bat urte zituen eta Madrilen bizi zen. Beraz, filmean Madril balitz lez agertuko dira egunotan Durangon grabaturiko eszenak, Javier Sanjuan filmeko ekoizpen buruak azaldu duenez.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).



# Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus







**IMQ Igurco Korrikarekin**



**IMQ Igurco**

Adinekoentzako zaintza eta arreta  
espezializatua

**IMQ Igurco Orue**      **IMQ Igurco Azkuna**

94 630 05 50    Bº San Miguel de Dudea s/n    94 630 99 55    c/ José Antonio Aguirre 2



**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**+55 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAITZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervi3n

ISO 9001  
ISO 14001  
ISO 50001  
PEFC  
FSC

INGURUMENA  
SEGURTASUNA  
KALITATEA  
BERRIKUNTZA  
TEKNOLOGIKOA



Orain urte biko Korrikan ateratako argazkiak.

## Korrikaren lekukoak birritan bisitatuko du Durangaldea, martxoaren 20an eta 22an

Nobedade legez, aspaldiko partez aurten Korrika Mañaritik pasatuko da, bertako herritarren gozamenerako. Urkiolako mendatea igoko dute, martxoaren 22ko gauerdia aldera

### DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Badator Korrika Durangaldera. Aurten, gainera, birritan bisitatuko du eskualdea. Martxoaren 20an, lasterketa 08:54 aldera sartuko da Zaldibarren, Elgetatik, Aixolako urtegiko bideetan behera eginda. Urtegia igaro eta Eitzagan sartuta, Korrikak Goierri auzora egingo du; gero handik Areitioko gainera jo, eta Mallabiko herrigu-

nera helduko da. Ondoren, lasterketak Mikel Zarate kalean behera egingo du, eta industrialdea pasatu eta gero Ermuan sartuko da.

### Bigarren bisita

Martxoaren 22an, Korrikak Durangaldeko herririk gehienak bisitatuko ditu. Lasterketa 17:39 aldera sartuko da Zornotzan, Lemoatik. San Pedro kalean au-

rrera eginda zeharkatuko du udalerriko erdigunea, eta, gero, Gane aldera egin, eta handik Iurretarako bidea hartuko du. Iurreta zeharkatu ostean, Korrikak Traña-Matienarantz joko du, N-634 errepidean zehar. Zubibirtate kalea zeharkatu eta gero, berriro ere errepide nagusira irtengo du. Handik Berrizera joango da, eta Olakuetatik Miota alde-

ra egingo du. Lasterketa 20:30ak pasatxoan ailegatuko da Elorrioko Erreka kalera. San Agustin auzoa atzean utzi eta gero, Atxondon sartuko da. Bidean aurrera eginda, Korrikak Abadiñoko Solozabal kalea igaro eta Durangorako bidea hartuko du. Lasterketa Zeharmendieta kalean behera eginda sartuko da eskualdeko herriburuan. Herriko hainbat kale zeharkatu eta gero, Galtzaretako kaletik Izurtzarako bidean jarriko da. N-623 errepidea hartuta, Korrikak Izurtza eta Mañaria zeharkatuko

ditu. Urkiolako mendatean gora eginda, gauerdia aldera igoko da gainaldera. Lasterketa gauerdia igarota sartuko da Otxandioko herriguneara. Handik Legutiorako bidea hartuko du.

Hamar egunean zehar, Korrikak Euskal Herriko zazpi lurraldeak zeharkatuko ditu, egun eta gau, geratu barik, Harro herri lelopean. Aurtengo edizioaren abestia Mursegok egin du, eta omen-dutako egitasmoa Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko Azterketak Euskaraz dinamika izango da. Lekuko barruko mezu ezezagunaren egilea nor den Baionara heldurikoan argituko da. AEK-k bere euskaltegien sarea sendotzera bideratuko du baturik dirua.

# % 100 URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,  
inbertituz eta mantenduz.



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia  
[www.consorciodeauas.eu](http://www.consorciodeauas.eu)





Ziortza Aldekoa-Otalora, Esther Garitaonandia eta Miren Iturriagatxebarria.

**Lekukoa hartuta goazen Baionara euskara erabiliz zoriontsu gara.**

**23. korrika HARRO HERRI**

HAN, HEMEN eta KD-n... EUSKARAZ

**maristak**  
Irungo Eskola

**Euskaraz Lanean**

**IZAR**  
CUTTING TOOLS

Boroa Enpresa-Parkea, 2 B2  
Zornotza · Tfnoa. 94 630 02 41  
comercial@izartool.com

izartool.com

**K ARMENGO AMA**  
MARTXOAK, 22

1949tik  
euskararen alde!



# "Guretzat nahikoa sasoi estresagarria da, gure egunerokotasunari orain karreraren antolaketa gehitu behar diogulako"

Korrikaren antolaketa asteak zoramena izaten dira AEK-ko langileentzat. Hala ere, behin eguna helduta, ilusioz bizi duten momentua izaten da

## DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

**AEK-ko langileak buru-belarri dabilza Korrikaren antolaketan. Kilometro guztiak bideratzea, petoak banatzea, herrien arteko koordinazioa arduratzea, egitaraua lantzea... Lan handiko egunak dira Ziortza Aldekoa-Otalora, Esther Garitaonandia eta Miren Iturriagaetxebarria AEK-ko irakasleentzat, baina, batez ere, emozio handikoak. Aurten, edizio berezia izango da hirurentzat, metro batzuk Julio Aranguena AEK-ko irakaslearen omenez korrika egingo dituztelako.**

### Zelan doa Korrikaren prestaketa?

**Ziortza Aldekoa-Otalora:** Badoa. Guretzat nahikoa sasoi estresagarria da, gure egunerokotasunari karreraren antolaketa gehitu behar diogulako.

**Zelan bizi dituzue Korrika helduurreko egunak?**

**Miren Iturriagaetxebarria:** Nahikoa urduri, egia esan. Beti izaten dut sentazioa gauza asko falta dela lotzeko, eta badatorrela. Baina gero, urteen eskarmentugaitik edo, ondo irtetzen du eta

eginbeharrekoak lotuta izaten ditugu.

**Esther Garitaonandia:** Korrika txikiak egin, bide bazterrak markatu, deiei erantzun, azken ordukoiei aurre egin... Ez da samurra izaten.

**Z.A.:** Oso egun gogorrak izaten dira. Egunak 48 ordu balitu ere, faltan izango genituzke.

**Zenbat urte daramatzazue lan hori egiten?**

**M.I.:** Ez dakit segurua esaten, baina hogeita hamar bat urte daramatzat AEKn; beraz, hamabost bat edizio. Badira batzuk!

**E.G.:** Neu ere Mirenen antzera. AEKn hastez batera, KORRIKA etorri zitzaidan gainera, 7.edizioa hain zuzen ere.

**Z.A.:** Behar honetan, hiruretan berriena naiz. Barrutik bizi izan nuen lehenengoa 11. KORRIKA izan zen; beraz, aurtengoa hamahirugarrena da.

**Beti bizi izan duzue herri mailan ala ibili zarete inoiz furgonetan eta beste lan batzuk egiten? Zelakoa da lan hori?**

**M.I.:** Nik beti bizi izan dut herri

mailan. Hala ere, azken lau-bost edizioetan furgoneta aurrean doan kotxean zeharkatu dut Durangaldea, eta beste era batera bizi izan dut. Gure kasuan, jendea gure atzean datorrenari begira dago guri baino gehiago; hala ere, musika eta zarata dexente ateratzen dugunez, lortzen dugu jendearen emozioa ikustea, gu pasatzen garenetik lasterrera hartuko dutelako lekukoa edota batuko direlako lasterketara.

**E.G.:** Ni Durangon aritu naiz beti. Furgonetan petoak saltzen baino ez.

**Z.A.:** Ni Iurretan eta Elorrion. Urteren batzuetan biak koordinatu beharra egokitu zait, eta KORRIKAREN aurretik Txatok eta Lobok ateratzen zuten furgonetan bueltatxo egiteko aukera izan dut. Giro ederra egoten zen!

**Zein bilakaera izan duela uste duzue AEKn hasi zineten urteetatik hona?**

**E.G.:** Gaur egun, Korrikak askoz ere oihartzun handiagoa dauka; euskararen alde antolatzen dugun ekitaldi erraldoi hau ezagunagoa da orain (atzerrian ere baditu hain-

bat ahizpa). Sasoi batean, kostatu egiten zen lekuko eroaleak lortzea. Orain askoz ere errazagoa da, eta orain nekeza da eroale guztiak tartea eskaini ahal izatea.

**Harrera ezin hobea izaten du. Zuek ere horrela bizi duzue kilometroak antolatzekoan?**

**M.I.:** Bai, orokorrean geroago eta laguntza handiagoa dugu, baina ez dezagun ahaztu euskararen normalizazioan eragitea dela helburu nagusia, eta oso karrera zirrargarria den arren, egunerokotasunean egin behar dugu euskararen alde.

**Euskararen aldeko ekimenen artean, errotuen dagoena izan daiteke, baita parte hartzaileena ere. Zergaitik izan daiteke hori?**

**Z.I.:** Ekimen hutsari begiratuz gero, batzea erraza delako izan daiteke izan lekuko eramaile, edo karrerako parte hartzaile. Baina ekintza honek, beste hainbatek legez, konpromiso batzuk ekarri behar ditu denon aldetik. Eta hor hankamotz gabiltza oraindino.

**Emozioz beteriko uneak bizitzen dira Korrikaren inguruan. Zuek bizitako zeintzuk momentu nabarmenduko zenituzkete?**

**M.I.:** Orokorrean, hasiera eta amaiera oso hunkigarriak dira. Gure eskualdera etorrira, Berri-zen 100 urteko andre ezagun batek egin zituen metroak ditut gogoan, esaterako.

**E.G.:** Atzera begira, Egunkaria itxi zuteneko amaiera hura ekarriko genuke gogora. Baina uste dugu guretzat hirurontzat aurtengoa izango dela berezia, gure Julioaren omenez metro batzuk egingo ditugulako, Durangoko erdigunean, Madalena.

**Zer esango zeniekete herriarrei?**

**M.I.:** Martxoaren 20an Zaldibarran, eta martxoaren 22an gainerako herrietan irten daitezela Harro Herri lelopean arinetan egitera, euskaraz eta euskararen alde. Eta biharamunean jaiki daitezela bezperan esandakoak gogoan. Gure esfortzua askoren gozamen izan dadila! Durangaldea ere Harro Herri!



**Maria Bitarteko Ikastetxea**  
Urarka kalea, 2  
48230 Elorrio  
946231626

**Lourdesko Ama Ikastetxea**  
Lourdes etorbidea, 8  
48230 Elorrio  
946820056

**Bihotz, muxu, irrintzi,  
bihotz, muxu, irrintzi,  
ahoa euskaraz jantzi!**

# “Euskaraz harro bizi gura duen herri bat dagoela erakutsi gura dugu”

Ane Elordi zornotzarra buru-belarri dabil Korrikako koordinazio lanetan. Prestaketa lanak azken txanpan daude



Ane Elordi Alburquerque  
Korrikako koordinatzailea  
**ZORNOTZA | 1991**

## KORRIKA • EKAITZ HERRERA

"Orain Zornotzara bueltatu naiz, baina Iruñean pasatu dut gaua", dio elkarrizketa hasi aurretik. "Korrikaren aurkezpen soziala egin dugu han", argitu du. "Aurrekoan ere Gasteizen izan nintzen. Goizean, Bilbon". Eta halantxik dabil egunotan, batetik bestera. Bilera bat hemen, bilera bat han. Koordinazio apur bat hemen, koordinazio apur bat han. Korrikak oraindino Irundik irten ez, eta bera Euskal Herria alderik alde zeharkatzen. Eta halantxik, furgonetara igotzeko beharriarik barik, Irundik Baionarako ibilbidea irudikatu dugu elkarrizketa honetan.

Iruren gaude. Udal plaza topera dago. Hartu duzu mezu anonimoa, sartu duzu lekuko barrura, eta **Aurrera Korrika!** oihukatu duzu. Hasi da manifestazio erraldoia. Zelan, eta mugak apurtuta gainera.

Bai, horixe aldarrikatzen dugu, ez dagoela mugarik. Gure muga bakarra euskara da. Hiru administrazioetan mugitzen gara, zazpi euskal lurraldeak zeharkatzen ditugu, eta euskarak baino ez digu ibilbidea mugatzen.

**Donapaleu, Maule-Lexarre, Donibane Garazi,...** Korrika aurrera doa Nafarroa Beherea eta Zuberoa zeharkatuta. Eta Pirinioetako errepi-deetan elurrik balego?

Gertatu daiteke. Eta egunotan dugun eguraldia ikusita, batek daki zer etorriko zaigun! Aurreko edizioan sorpresaz harrapatu gintuen elurrak. Eta aurten aurreikuspen batzuk landu ditugu, zeozer gertatuko balitz arazoari aurre egiteko. Dena dela, Piri-

**HARRO gaude  
HERRI bat gara  
TXINTXIRRI korrika!**

San Pio 3 Elorrio  
Tel.: 946 582 261  
elorrio@ikastola.eus

www.elorriokoikastola.eus

TXINTXIRRI  
ELORRIKO  
IKASTOLA

• ERDI MAILAKO ZIKLOAK  
• GOI MAILAKO ZIKLOAK

Korrikarekin  
**Bat**

IURRETA  
Lurralde Herria

www.iurretalhi.eus  
idazkaritza@iurretalhi.eus  
Tel.: 944 66 88 00

**Etorkizuna Hitzekin  
eraikitzen**

**jsu**  
Jesuitak  
Durango

AUXILIARES  
**HIRUKOBAT, S.L.**

Eitua poligonoa, 52- 4F · Berriz  
**946 225 715**

nioak nekazaritza eremua dira, eta kasu horretan seguru nago bertako herritarren laguntza jasoko genukeela. Lar arduratuta ere ez gaude (barrez). Korrikak beti lortzen du aurrera egitea. Furgonetagaz ezin dugula? Bada, oinez igaroko dugu.

**Eta, halako batean, begien aurrean, Iruñea. Korrikak bisitatuko duen lehenengo hiri handia.**

Nafarroako hiriburua, Iruñerria eta Nafarroako zati handi bat lehenengo zapatuan zeharkatuko ditugu. Iruñea garrantzitsua da, beste hiri askotan legez jende-masa handia batzen delako. Baina, horrez gainera, azpimarratzekoa da aldarrikapenerako eremua ere badela. Gure mezuak zabaltzeko aprobetxatuko dugu. **Erriberan sartu gara. Tuteran, Arguedas, Bardeak... Euskal Herriko eremurik sikuenetarikoa izateko, euskarak lore politikak ditu hor behean.**

Bai. "Erriberan beteko ote ditugu kilometroak?" Beti dugu hori pentsatzeko joera. Baina han ere badaude euskalgintzan dabilzan herritarrak eta eragileak. Egundoko elkarlana egiten dute, oso lan garrantzitsua. Tartean daude Errigora eta Agerraldia moduko egitasmoak. Denen artean ingurua euskalduntzeko ahalegina egiten dute. Merezi dute aitortza hori.

**Eta lekuko aldaketekin, lurralde aldaketa. Korrika Lizarratik Arabara sartuko da. Aspaldiko partez, Arabako Errioxako biztanleek kopa bat ardo eskuan egingo diote ongi-etorria Korrikari.**

Edizio guztietan ahalik eta lurralde eta eskualderik gehien zeharkatzen ahalegintzen gara, baina beti ez da erraza. Geografiak bere baldintzak ipintzen dizkigu. Bada, aurren, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa, biak, zeharkatuko ditugu. Gu pozik gaude horregaz, eta bertako biztanleak ere pozarren daudelakoan nago. Seguru nago Korrikak harrera bikaina izango duela eskualde horietan.

**Gune populatueta euskaratik eragitea beharrezkoa da, horregaz eremu batzuetan euskaraz eroso bizi ahal izateko**

**Gasteizko kaleetan makina bat buelta eman eta gero, hiriko bihotzean sartuko da lasterketa. Aiztogile kalean, 'Kutxin', festa giroan. Honako irudi hau etorri zaizu burura: Harro Herri.**

Dudarik barik. Festa eta 'Kutxi' eskutik lotuta egoten dira sarri. Baina ez dezagun ahaztu Korrikaren helburua zein den. Euskararen kontzientzia da erronka. Alda-

rrikapenerako hamar egun izaten dira. Jai giroa bai, baina Korrika zertarako den presente izanda.

**Sakanatik aurrera, Ultzama eta Larraun eskualdeetara helduko gara. Biztanle gutxiko herriak, baina denek argi dute ez dutela atzerapausorik emango. Burugogorkeria hori beharrezko dugu oraindino?**

Bai, bai. Aipatu dituzun eremuez gainera, Arabako beste hainbat zonalde datorkit burura. Beharbada ez dira eremu populatuak, baina bertan batzen dituzten gogoa, indarra eta jarrera oso garrantzitsuak dira. Indar horri eskerrak egingo dugu aurrera.

**Gipuzkoako zati handi bat zeharkatuta, Bizkaia Maite. Eta herri txikietan, ekintza txikiak. Guraso talde batek antolatutako txokolatada, lagunarte batek antolatutako azeria eta parranda. Korrikak aurpegi asko ditu.**

Korrika aitzakia ezin hobea da mahai baten bueltan batzeko. Segun zein den zure herritik igarotzen den ordua, Korrika pasatu baino lehenago edo Korrika behin pasatuta egingo duzu ekintza hori. Azken finean, elkartzeko modu bat da. Komunitatea, herria, sareak,... hori guzti hori batzeko aukera eskaintzen du Korrikak. Neuk ere badut planen bat edo beste. Ea dena aurreikusiriko moduan doan eta halako plan txikiez gozatzeko aukerarik dudan.

**Bizkaiko herrietan bueltaka ibili eta gero, Bilbora ailegatuko gara, gure city metropolitarrera. Euskarak metropolitari bizi bada, gainerako eremuetan ere biziko da?**

AEKn argi dugu aurretik lan handia dugula hiriburuek euskalduntzeko. Gune populatueta euskaratik eragitea beharrezkoa da, horregaz eremu batzuetan euskaraz eroso bizi ahal izateko. Eta Bilbon ere badugu erronka hori.

**Bertan Bilbo, eta bertan Durangaldea. Korrika gure eskualdera helduko da. Nondik eta zure jaioteritik, Zornotzatik sartuta.**

Bai. Zornotzatik sartu, Durangaldea zeharkatu... eta Urkiola igotzen hasiko gara! Ibilbidea diseinatzea izaten da lanik neketsuenetariko bat. Eskualderik eskualde dauden beharrezkoen erreparatzen diegu; adibidez, aspaldi zein herritik igaro ez garen aztertuta. Eta, Durangaldean, Mañaritik eta Izurtzatik aspaldi pasatu ez gara

**Mañaritik eta Izurtzatik aspaldi pasatu ez gara ikusi genuen, eta apustu bat egitea erabaki dugu**

ikusi genuen, eta apustu bat egitea erabaki. Horrenbestez, Mañaria eta Izurtza ibilbidean sartzea erabakitzen duzun momentutik, aukera bi baino ez dituzu: Urkiola bajatu edo Urkiola igo. Eta gora egitea tokatu da. Seguru nago jendeak gogotsu egingo duela arineketan Urkiolan gora.

**Debagoiena, Goierri, Tolosaldea, Donostia... eta Pasaiako badia. Ibilbideko irudirik bitxienetariko bat hor, Pasai San Pedrotik Pasai Donibanera lekukoa itsasoz igarotzen da eta.**

Bai. Azken urteotan Albaola itsas fabrikara sartzeko ohitura izan dugu, baina aurren ez dugu hori egingo. Edozelan ere, lekukoa itsasoz igaroko da. Furgoneta Pasai San Pedron geratuko da, eta lekuko eroalea txalupan joango da Pasai Donibanera. Hurrengo lekuko eroalea bertan egoten da zain.

**Eta, azkenean, azken txanpan sartuko gara. Lapurdiko herriak zeharkatu ostean, Korrika Baionako karriketan ibiliko da bueltaka. Herriko Etxearen aurreko plaza jendez gainezka, txalo artean. Zer titular irakurri gura zenuke euskal hedabideetan?**

Honako hau: Euskarak Baionako kaleak kolapsatu ditu. Horixe gura dugu. Euskaraz harro bizi gura duen herri bat dagoela erakutsi gura dugu. Gainera, Ipar Euskal Herrian irudi hori ematea oso garrantzitsua delakoan nago.

**NEVERS**  
IKASTETXEA

**Ika, ika, ika, badator  
KORRIKA!**

Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6  
48200 Durango, Bizkaia

neversikastetxea.com

946 81 09 46

@neversikastetxea

# Gure Kide Albaitaritza Klinikakoek gonbita luzatu diete herritarrei euren kilometrora txakurrekin batera joateko

Abadiñoko Gure Kide Albaitaritza Klinikakoek kilometro bat eskuratu dute eta gura duten txakurrak ekimenera batu daitezke euren hanka biko lagunekin



Gure Kide Albaitaritza Klinikako langileak.

**ABADIÑO • JOSEBA DERTEANO**

Gure Kide Albaitaritza Klinikak Korrikako kilometro bat eskuratu du euskararen aldeko jai handian parte hartzeko. Lau haizetara entzungo dira euskararen aldeko oihuak, eta, beharbada, zaunkak ere bai. Txakurrekin lan egitera ohituta, herritarrei dei egin diete euren txakurrekin batera joateko. "Deigarria eta polita izan daitekeela uste dugu", dio Gure Kideko Uritz Alday Izagirrek. Gure Kidek Abadiñoko Traña-Matierna auzoan du klinika, baina oraindino ez dakite seguru euren kilometroa non den. Dakitenean, euren sare sozialetan —Facebook eta Instagram— iragarriko dute.

**Euskaragazko konpromisoa**

Gure Kidek euskaragaz duen konpromisoa ez da egun batera mugatzen. Euskara euren klinikako esparru guztietara zabaltzen ahalegintzen dira. "Webgunea euskaratu egin dugu eta sare sozialetan nahiz aurrez aurreko hartu-emanen gure lehenengo berba euskaraz izan dadila ahalegintzen gara", dio Aldayk. Aldayk ahal duen guztietan parte hartzen du Korrikari, eta lagunekin Korrikaren azken egunean helmugara joateko ohitura du. Aurten ere egingo dute ahalegina, Baionara oraingon.



# GOL

**Global SM**

**Eitua Ind. Pol., 63,  
48240 Berriz  
Tel.: 943 75 21 00**

# BIZI TZEKO HEZI



## KURUTZIAGA IKASTOLA EUSKARAREKIN ETA KORRIKAREKIN BAT



KURUTZIAGA  
IKASTOLA



[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)



# Mañariko lagun kuadrilla prest dago Korrikan Urkiolako lehenengo aldatsa "astiro-astiro eta ilusio handiz" egiteko

Denboratxoa daramate astero dirua ipintzen kilometroa eskuratu ahal izateko

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Martxoaren 22a egun handia izango da Mañarian. Hamaika urteren ondoren, Korrika herritik igaroko da berriro, 22:45-23:00 inguruan. Eta, 2013an legez, Mañariko lagun kuadrilla bat hantxe egongo da aurten ere, lehenengo lerroan. Orduan aldats behera egitea egokitu zitzaizen bide bera aldats gora egin-

go dute orain, baina prest daude erronkari aurre egiteko: "Astiro-astiro eta ilusio osoz egingo dugu", dio Pedro Areitio Orobiourrutia mañariarrak.

Bariku iluntzero eta zapatu nahiz domeka eguerdietan modu bat jan, tragoren bat hartu eta lagun artean egoteko geratzen diren zazpi-zortzi bikotek osatzen

dute Mañariko kuadrilla, eta denboratxoa daramate plana antolatzen. Kilometroa eskuratzeko dirua apurka batu dute, "poltsikoari min gutxiago egiteko". Barikuro bosna euro ipintzen hasi ziren, eta orain hamarna ipintzen dute.

Kuadrillan denak jubilatuta daude, Areitio salbu, baina berari ere gutxi geratzen zaio erretiroa

hartzeko; aurten 65 urte egingo ditu. Erronka polita dute aurretik. Mañariko autobus geltoki inguruan jasoko dute testigua eta eurek ekingo diote Urkiola mendateari.

**2013an aldats behera ibili ziren Urkiolan; orain lehenengo aldatsa igoko dute**

Beraz, zati bat aldats gora egingo dute. Areitio ondo ezagutzen du bidea, egunero egiten duelako, baina kotxez, beharrera joateko. Korrika egitea beste kontu bat da. "Urteek ez dute barkatzen", baina erronkari aurre egiteko "prest" dagoela dio. Sasoi batean, korrika ere ibiltzen zen. Edozelan ere, edozein ustekabekoren aurrean, B plana pentsatuta dauka: "Testigua

jende gazteari eman eta kito". Egin beharreko bidea negoziagarria da, beraz, baina janzkera ez. Orain 11 urte jantzi ziren moduan jantziko dira, ingurukoek ere halantxik eskatu dietelako.

Euskarari bultzada emateko eta lagun artean egoteko baliatuko dute Korrika. Martxoaren 22an ez da girorik faltako herrian. Lehenengo, Korrika heldu aurretik, 20:30 inguruan, Ratapunk elektrotzaranga ibiliko da herriko kaleak girotzen. Korrika 22:45 inguruan igaroko da Mañaritik, eta herriko hainbat elkarte ez ezik, Mañariko lagun kuadrillak ere eramango du testigua. Ondoren ere badago zegas gozatu. Izan ere, 23:30 inguruan, Xabier Solano eta Zigor DZ musikariek kontzertua emango dute, plazan.



Mañariko lagun kuadrilla joan zen zapatuan, Herriko Tabernan.



Kuadrillako kidea den Juan Carlos Elguezua testiguagaz, 2013an. Bere ondoan, Pedro Areitio.

**INSTITUTUA**  
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

*Durango Institutuan,  
Euskara aho eta  
bihotzean!*

**Anboto eta Berbaro  
Korrikarekin bat**

**ANDRAMARI**  
**ZORNOTZAKO IKASTOLA**  
Euskara ahoan, euskara bihotzean

**Martxoaren 14tik 24ra Korrikarekin bat!**

946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoikastola.eus



## Abadiño

Martxoak 10, domeka

**'Korrikaren historia' erakusketa eta petoen salmenta.**  
Azokan, Txanporta plazan

Martxoak 15, barikua

**'Hiru kortse, azufre asko eta brandy gehiegi' antzezlana.**  
Errota Kultur Etxean

Martxoak 16, zapatua

## Berriz

Martxoak 9, zapatua

**19:00 Baginaren bakarrizketak.** Berrizko Kultur Etxean

Martxoak 22, barikua

**Goizean, kantaldia.** Eskolan

**15:00 Korrika Txikia.**

**18:15 Diskorrika.** Olakueta plazan

**20:00 – 21:00 Lizartzako txaranga**

Apirilak 11, eguena

**11:00 Bizkarsoro** (DBHko ikasleentzat eta AEK-ko ikasleentzat)

**19:00 Bizkarsoro** (edonorentzat)

**'Lasterbidean' bertso saioa.** Errota Kultur Etxean

Martxoak 17, domeka

**'Bizkarsoro' filma.** Errota Kultur Etxean

Martxoak 21, eguena

**'Udalatx, ura eta atxa' filma.** Txanporta Kultur Etxean

Martxoak 24, domeka

**Baionara joateko autobusak.** Katalamixon eta Isiotu

## Durango

Martxoak 21, eguena

**19:00 Euskaldungak.** San Agustin Kultur Gunean.

## Iurreta

Martxoak 22, barikua

**11:00 Korrika txikia**

**17:15 Zapotxin pailazoa.** Askondoko Karpan

**19:15 Burrenba elektrotzaranga.** Herrian zehar

**20:00etatik aurrera Euskolabel oilasko pintxoak.**

## Atxondo

Martxoak 15

**20:30 Rakata** punk elektrotzaranga

Martxoak 22

Goizean zehar **Korrika txikia**

Arratsaldean **kale animazioa** plazatik Irubidera

**21:30**etatik aurrera **Herri Afaria frontoian.** Ostein, **DJ**  
**Gaztetxean**

## Elorrio

Martxoak 16 - 17 - 18

**20:00 Bizkarsoro.** Arriola Kultur aretoan

Martxoak 22, barikua

**11:00 20:00 Bizkarsoro.** (DBHko ikasleentzat) Arriola  
Kultur Aretoan

**14:30 Korrika txikia**

**18:30 Diskofesta.** Herriko plazan

**18:30**etatik aurrera **Fanfarrixo** herrian zehar

Martxoak 23, zapatua

**20:00 Baginaren bakarrizketak.** Arriola Kultur Aretoan

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

Bezeroa, bere enpresako  
kudeaketa eta bere  
gogobetetzea dira  
gure helburu nagusia



- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

## Otxandio

Martxoak 15, barikua

**19:00 'Gora Euskal Herrientsak'** Asisko Urmenetaren komikiaren aurkezpena. Bolalekuan

Martxoak 16, zapatua

**16:30 Txixiburduntzi eguna.** Oinez galtzadatik Mekoletara

Martxoak 17, domeka

**Eguerdian Korrikaren alde, otzara baten zozketa.** Plazan

Martxoak 22, barikua

**Egunean zehar, Korrika txikia, dokumentala, kale**

**girotzea, korrika zuzenean, pelota partiduak, afari merienda herrikoia, AIKO taldea,** Korrika Otxandiotik

Martxoak 24, domeka

**09:00 Autobusa Baionara.** Autobus geltokian

## Mañaria

Martxoak 22, barikua

**20:30 Rakata** punk elektrotaranga

**23:30 Xabi Solano eta Zigor DZ**

## Zornotza

Martxoak 12, martitzena

**19:00 'Pantailak Euskaraz, ezinbesteko erronka' hitzaldia.** Zelaietako Auditoriumean

Martxoak 14, eguena

**19:00 Gibelurdinek musika.** Luis Urrengoetxea kalean

Martxoak 21, eguena

**10:00 Korrika txikia**

Martxoak 22, barikua

**17:00 Mamiki batukada.** Herriko kaleetan

**20:00 Almazenean antzezlan.** Aretoan

**Korrika pasatu ondoren, Diskorrika** familientzako musika

## Mallabia

Martxoak 15, barikua

**19:00 Trikipoteoa.** Antolatzailea, Zaparrada

Martxoak 17, domeka

**12:00 Txistulari eguna, Andra Mari elizan.** Antolatzailea, UEMA.

Martxoak 18, astelehena

**16:15 Guraso euskaldunentzat sentsibilizazio tailerra, eskolan.** Antolatzailea, UEMA.

Martxoak 20, eguaztena

**17:00 Mamiki batukada.** Herriko kaleetan

**20:00 Almazenean antzezlan.** Aretoan

**Korrika pasatu ondoren, Diskorrika** familientzako musika

Martxoak 21, eguena

**19:00 Zineforum Bizkarsoro, Kontzejuzarreen.** Antolatzailea, Udala.

**INDUSTRIA**  
**EUSKALDUNA**

www.talleresasca.com  
Galdaketarako moldeak eta ereduak

25 Urte  
Abadiñoko Institutua

**25 urte euskarazi!**

Tranaetxoste 10, 48220 Abadiño  
Tel.: 944 287 969  
015071aa@hezkuntza.net | www.iesabadiñobli.com

## Euskararen Arnasgune



### Taberna

Ogitartekoak, merendolak...

07:00etatik 23:00etara  
egunero

### Errota Ostatua

Logelak eta aterpetxea

errotaostatua.eus

### KirolErrota Gimnasioa

Muskulazio-gela,  
saunak, ikastaroak...

kirolerrota.eus

### Hezkuntza

Batxilergoa

Lanbide Heziketa: Haur Hezkuntzako Goi-mailako Zikloa  
Lanbide Heziketa: Gizarteratzeko Goi-mailako Zikloa

ibaizabalikastola.eus



Intxaurren kalea 54, 48200 - Durango (Bizkaia)



946 215 877



idazkaritza@ibaizabalikastola.eus



naiz: hamaika berria  
aldi hau kontatzeko ARGIA eitb

# æek 23. korrika

## HARRO HERRI

Irundik Baionarat 2024ko martxoaren 14tik 24ra



korrika.eus  
@korrika\_eus

### MARTXOAK 14, OSTEGUNA

Irun	16:00
Hondarribia	16:37
Irun	17:10
Hendaia	17:26
Ziburu	18:45
Donibane Lohizune	19:08
Azkaine	19:40
Itsasu	21:58
Kanbo	22:43
Uztaritze	23:29

### MARTXOAK 15, OSTIRALA

Hazparne	00:47
Donapaleu	04:11
Arüe	05:29
Maule	06:53
Urdiñarbe	07:19
Larزابale	09:20
Donibane Garazi	10:58
Azkarate	11:24
Baigorri	12:16
Erratzu	14:14
Arizkun	14:34
Elizondo	15:08
Irurita	15:26
Eugü	18:23
Zubiri	19:02
Erro	20:00
Lintzoain	20:19
Garralda	21:57
Abaurrepea	23:11
Abaurregaina	23:30

### MARTXOAK 16, LARUNBATA

Eskaroze	00:54
Nabaskoze	03:10
Domeñu	04:51
Zangoza	06:51
Oibar	07:36
Irunberri	08:39
Artieda	09:25
Agoitz	10:54
Urrotz	11:52
Egues	13:01
Uharte	13:28
Sarriguren	13:51
Burlata	16:44
Atarrabia	17:04
Iruñea	17:14
Antsoain	17:29
Iruñea	17:43
Artika	18:05
Berriozar	18:16
Barañain	19:15
Zizur Nagusia	19:38
Noain	20:37
Blurrin	21:48
Eneritz	22:29
Obanos	23:04
Gares	23:22
Mendigorría	23:54

### MARTXOAK 17, IGANDEA

Artaxoa	00:55
Tafalla	02:03
Miranda de Arga	03:55

Faltsez	05:31
Martzilla	07:47
Alesbes	08:38
Cadreita	09:45
Castejon	10:33
Tutera	12:24
Cascante	13:35
Tutera	14:47
Arguedas	16:18
Cadreita	17:22
Milagro	18:05
Azagra	19:25
San Adrian	19:58
Andosilla	20:23
Cancar	20:49
Lodosa	21:48
Sesma	22:45

### MARTXOAK 18, ASTELEHENA

Allo	00:10
Lizarra	01:09
Murieta	02:53
Antzin	03:12
Acedo	03:45
Kanpezu	04:54
Genevilla	05:26
Lapoblacion	06:20
Meano	06:34
Kripan	07:05
Elvillar	07:36
Guardia	08:15
Leza	08:50
Urizaharra	10:25
Trebiñu	11:56
Argantzón	12:55

Langraiz	13:45
Zuhatzu	15:09
Kuartango	
Izarra	16:13
Murgia	17:02
Abetxuko	19:33
Gasteiz (Alde Zaharra)	21:58
Elorriaga	23:11

### MARTXOAK 19, ASTEARTEA

Dulantzi	00:16
Dallo	01:03
Zuhatzu	01:39
Donemiliaga	
Agurain	01:59
Erdoña	02:35
Zalduondo	02:56
Araia	03:20
Egino	04:12
Ziordia	04:33
Olazti	04:47
Altsasu	05:13
Bakaiku	06:09
Etxarri Aranatz	06:27
Arbizu	07:07
Lakuntza	07:14
Uharte Arakil	07:38
Hiriberri	08:25
Irurtzun	09:13
Latasa	09:34
Oskotz	10:24
Eritzegoiti	11:09
Gelbentzu	11:42
Larraitzar	12:14
Beruete	13:52

Langraiz	13:45
Zuhatzu	15:09
Kuartango	
Izarra	16:13
Murgia	17:02
Abetxuko	19:33
Gasteiz (Alde Zaharra)	21:58
Elorriaga	23:11

### MARTXOAK 20, ASTEZKENA

Aldatz	14:24
Etxarri	14:31
Mugiro	14:50
Lekunberri	15:03
Uitzi	15:39
Leitza	16:31
Goizueta	18:38
Hernani	20:20
Lasarte-Oria	22:15
Usurbil	22:53

### MARTXOAK 21, OSTEGUNA

Bermeo	01:31
Mungia	03:56
Gorliz	05:43
Pientzia	06:08
Getxo	07:29
Leioa	08:37
Derio	10:20
Galdakao	12:33
Basauri	13:55
Arrigorriaga	14:58
Bilbo	16:59
Barakaldo	20:31

Sestao	21:52
Portugalete	22:08
Santurtzi	22:40
Trapagaran	23:18
Ortuella	23:55

### MARTXOAK 22, OSTIRALA

Abanto	00:27
Muskiz	01:18
Zalla	03:51
Gordexola	05:29
Artziniega	06:25
Aiara	07:56
Urduña	09:14
Amurrio	10:12
Laudio	11:27
Arakaldo	12:35
Ugao	13:09
Zeberio	13:46
Areatza	15:01
Igorre	15:38
Dima	15:59
Amorebieta-Etxano	17:39
Elorrio	20:13
Durango	21:56
Mañaria	23:08

### MARTXOAK 23, LARUNBATA

Otxandio	00:12
Legutio	01:12
Gatzaga	02:24
Arrasate	03:35

Sestao	21:52
Portugalete	22:08
Santurtzi	22:40
Trapagaran	23:18
Ortuella	23:55

### MARTXOAK 24, IGANDEA

Oñati	04:34
Zumarraga	06:54
Gabiria	08:05
Idiazabal	09:37
Beasain	10:57
Ordizia	11:48
Alegia	13:14
Ibarra	14:13
Andoain	15:57
Urnieta	16:42
Hernani	17:25
Astigarraga	17:54
Donostia	19:22
Pasai Antxo	23:01
Lezo	23:33
Orereta	23:52

# Korrika: ibilbidea Durangaldean zehar

## Martxoak 20

<b>Zaldibar</b>		<b>Eitzaga</b>	9:15:26	<b>Santa Marina</b>	9:33:29
<b>KM-22-Aixola</b>	8:54:00	<b>Goierrri bidea</b>	9:20:01	<b>Areitio gaina</b>	9:40:30
<b>Aixolako urtegia</b>	9:02:41	<b>Mallabia</b>		<b>Mallabiabarren</b>	9:47:00
<b>Aixola auzoa 5</b>	9:06:01	<b>Goierrri bidea</b>	9:26:37	<b>Mikel Zarate</b>	9:51:50

## Martxoak 22

<b>Zornotza</b>		<b>Zengotitabengoa</b>	20:00:33	<b>Muruetatorre</b>	22:15:38
<b>BI-725 KM 20</b>	17:39:45	<b>Zengotitabengoa</b>	20:07:04	<b>Sasikoa kalea,1</b>	22:22:09
<b>BI-725 KM 21</b>	17:46:15	<b>Elorrio</b>		<b>Galtzarreta kalea</b>	22:28:40
<b>San Pedro kalea</b>	17:52:39	<b>BI-3321 KM 37</b>	20:13:43	<b>BI-623 KM 30</b>	22:35:10
<b>Nafarroa kalea</b>	17:59:00	<b>BI-3321 KM 38</b>	20:20:13	<b>Izurtza</b>	
<b>Gane auzoa</b>	18:05:30	<b>BI-3321 KM 39</b>	20:26:45	<b>BI-623 KM 31</b>	22:40:38
<b>N-634 KM 90</b>	18:12:01	<b>BI-3321 KM 40</b>	20:33:16	<b>Mañaria</b>	
<b>N-634 KM 89</b>	18:18:32	<b>Erreka kalea, 6</b>	20:39:59	<b>BI-626 KM 32,3</b>	22:49:05
<b>N-634 KM 88</b>	18:25:02	<b>Ibaikua kalea, 2</b>	20:46:30	<b>BI-626 KM 33</b>	22:55:36
<b>N-634 KM 87</b>	18:31:32	<b>San Fausto kalea</b>	20:53:00	<b>BI-626 KM 34</b>	23:02:07
<b>N-634 KM 86</b>	18:38:02	<b>San Agustin BI-3331 KM 37</b>	20:59:32	<b>BI-626 KM 35</b>	23:08:37
<b>Iurreta</b>		<b>Atxondo</b>		<b>BI-626 KM 36</b>	23:15:09
<b>Arriandi N-634 KM 84</b>	18:44:41	<b>BI-3336 KM 44</b>	21:04:11	<b>BI-626 KM 37</b>	23:21:39
<b>N-634 KM 83</b>	18:51:12	<b>BI-3336 KM 45</b>	21:10:51	<b>BI-626 KM 38</b>	23:28:13
<b>N-634 KM 82</b>	18:57:42	<b>ARTIA BI-3336 KM 45</b>	21:17:21	<b>Abadiño - Urkiola</b>	
<b>N-634 Bidebarrieta</b>	19:04:13	<b>Abadiño</b>		<b>BI-623 KM 39</b>	23:34:44
<b>N-634 KM 81</b>	19:10:43	<b>BI-3336 KM 47</b>	21:24:02	<b>BI-623 KM 40</b>	23:41:17
<b>Abadiño</b>		<b>BI-3336 KM 48</b>	21:30:32	<b>BI-623 KM 41</b>	23:47:47
<b>Matierna N-634 KM 80</b>	19:18:49	<b>Solozabal kalea</b>	21:37:05	<b>BI-623 KM 42</b>	23:54:20
<b>Zubibitarte 14</b>	19:25:22	<b>BI-732 KM 49,1</b>	21:43:36	<b>BI-623 KM 43</b>	0:00:50
<b>Elorriagazar</b>	19:31:53	<b>Durango</b>		<b>Otxandio</b>	
<b>Berriz</b>		<b>BI-732 KM 50</b>	21:49:44	<b>CF-323 Errepidea</b>	0:07:28
<b>N-634 KM 78,50</b>	19:40:58	<b>Zeharmendieta</b>	21:56:14	<b>CF-323 Errepidea</b>	0:12:40
<b>N-634 Eitua industriagunea</b>	19:47:31	<b>Laubideta, 6</b>	22:02:38	<b>Ospitale kalea</b>	0:24:22
<b>N-634 San Antonio</b>	19:54:03	<b>San Agustin, 10</b>	22:09:08	<b>Olaetako bidea</b>	0:29:34

## Martxoaren 8an

**ABADIÑO mobilizazioa**  
Manifestazioa, 19:00etan,  
Laboral Kutxatik.

**BERRIZ mobilizazioa**  
Manifestazioa, 19:00etan,  
udaletxetik plazara.

**DURANGO mobilizazioak**  
Adierazpen instituzionala,  
11:00etan, Andragunean.  
**Andragunearen XV.**  
urteurren jaia eta bideoa,  
17:30ean, Santa Anan.  
**ITAIAREN manifestazioa,**  
18:30ean, Santa Anatik.  
**Mugimendu Feministaren**  
manifestazioa, 19:00etan,  
Andra Maritik.

**ELORRIO mobilizazioa**  
Mobilizazioa, 19:00etan,  
plazan.

**IURRETA mobilizazioak**  
Adierazpen instituzionala,  
18:00etan, Askondon.  
**Ondoren, manifestazioa.**  
Jarraian, Durangoko  
manifestaziora.

**MALLABIA mobilizazioa**  
Elkarretaratzea eta  
Adierazpen Instituzionala,  
12:00etan, udaletxearen  
aurrean. Eskolako haurrek  
'Konplize ditut eta' abestia  
abestuko dute.

**MAÑARIA mobilizazioa**  
Elkarretaratzea, 19:00etan,  
plazan.

**OTXANDIO mobilizazioa**  
Ekitaldia, 19:30ean,  
Andikona plazan.

**ZALDIBAR mobilizazioak**  
Manifestazioa, 19:00etan,  
udaletxeke plazatik.  
**Emakumeen afaria eta**  
dantzaldia, 21:00etan.

**ZORNOTZA mobilizazioak**  
Irakurketa instituzionala  
eta elkarretaratzea,  
12:00etan, Herriko plazan.  
**Emakumeen memoria**  
eta txapak, 17:00etatik  
20:00etara, Gaztetxokoan.  
**Manifestazioa,** 19:30ean,  
Herriko plazatik.  
**Berdintasun ihes gela,**  
20:00etatik 23:00etara.

**Bakarrizketa: Maria Blanco,**  
23:15ean, Zelaieta zentroan.

## Martxoaren 9an

**BERRIZ antzerkia**  
'Baginaren bakarrizketak'  
(Txalo), 19:00etan, Kultur  
Etxean.

**DURANGO dantza**  
'Bizkaian Emakumeak  
Dantzari' emanaldia:  
Alkartasuna (Bermeo),  
Itxartu (Arigorta), Salleko  
(Sestao), Ikusgarri  
(Errepelaga) eta, Kriskitin,  
Tronperri eta Txoritxu Alai  
dantza taldeak, 18:30ean,  
Andra Mariko elizpean.  
Kalejira, 18:00etan, Merkatu  
plazatik.

**DURANGO dokumentala**  
'Wikiemakumeok proiektu  
kolaboratiboa', 11:00etan,  
Andragunean.

**DURANGO kontzertua**  
Hiruzulo Folk Jaialdia:  
'Sustraien matxinada'  
(Garikoitz Mendizabal eta  
Gorka Hermosa), 19:00etan,  
San Agustin kulturgunean.

**ELORRIO dantza**  
'Aitzindariak' (Ixa  
Universos de Movemento),  
20:00etan, Arriolan.

**MALLABIA solasaldia**  
'Gure gorputzak hainbat  
lurralde', 12:30ean,  
Kontzejuzarreen.  
**Emakumezkoen Gomazko**  
**Paleta Elite txapelketa**  
(finala), 16:00etan, frontoian.

**MAÑARIA azoka**  
Emakume sortzaile eta  
ekoizleen azoka, 10:30ean.  
**Trikipoteoa,** 13:00etan.  
**Bazkaria,** 14:30ean.  
**Bingoa,** 16:30ean.  
**Talde argazkia,** 18:00etan.  
**Irati Otadui,** 19:00etan,  
Arritokin.

**DJ Txululu,** 22:00etan,  
Herriko tabernan.

**ZORNOTZA azoka**  
Emakume nekazari eta  
artisauen azoka Triki Piu  
taldeak girotuta, 10:00etan,  
Zelaieta parkean.

**Marixelarre sari banaketa,**  
12:30ean.

## Martxoaren 9an eta 10ean

**ZALDIBAR erakusketa**  
Helmuga emakume  
elkarteak antolaturiko  
erakusketa, liburutegi  
zaharreen.

## Martxoaren 10ean

**ABADIÑO azoka**  
Hileko 2. domekako azoka,  
10:30ean, Txanporta plazan,  
Samba Badago taldeak  
girotuta.

**ABADIÑO ekintza**  
'Azertu Natura'.  
Urkiolako Parke Naturalak  
antolaturiko doako  
ekitaldia (8 urtetik gora).  
Izena emateko: 94 681 41 55

**DURANGO lilakrosa**  
XII. Lilakrosa, 12:00etan,  
Ezkurdin.

**DURANGO antzerkia**  
'Señora Einstein'  
(Defondo), 19:00etan, San  
Agustin kulturgunean.

**MALLABIA antzerkia**  
'Pronoia' (Virginia Imaz),  
12:30ean, Kontzejuzarreen.

## Martxoaren 10era bitartean

**MALLABIA erakusketa**  
Argazki erakusketa  
(Fekoor), Kontzejuzarreen.

## Martxoaren 11ra bitartean

**IURRETA ihes jokoa**  
'Lilith' ihes jokoa, kultur  
etxean (09:00-13:30 /  
17:00-20:00). Izena emateko:  
94 621 53 72 / 'gizarte-  
ongizatea@iurreta.eus' / 688  
69 65 03

## Martxoaren 12an

**MALLABIA berbaldia**  
'Liztor asierra eta erleak'  
(Hizlaria: Erlete Eztiolako  
erlezainak) formakuntza  
saioa, 19:00etan,  
Kontzejuzarreen.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri  
gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo  
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEA

• **Sala de profesores**  
barikua 8: 19:30  
domeka 10: 19:00

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Por tus muertos**  
barikua 8: 18:30 / 21:00  
zapatua 9: 17:00 / 19:15 / 21:30  
domeka 10: 18:30 / 19:45  
astelehena 11: 18:00 / 20:15  
martitena 12: 18:00 / 20:15  
eguztana 13: 19:00

• **Los pequeños amores**  
barikua 8: 18:30  
zapatua 9: 17:00 / 19:15  
domeka 10: 16:30 / 18:30  
astelehena 11: 18:00 / 20:15  
martitena 12: 18:00 / 20:15  
eguztana 13: 19:00

• **Sala de profesores**  
barikua 8: 21:00  
zapatua 9: 21:30  
domeka 10: 20:30  
astelehena 11: 18:00  
martitena 12: 18:00  
eguztana 13: 19:00

• **Secretos de un escándalo**  
barikua 8: 21:00  
zapatua 9: 21:30  
domeka 10: 20:30  
astelehena 11: 20:15  
martitena 12: 20:15

• **Kung Fu Panda 4**  
barikua 8: 18:30  
zapatua 9: 17:00 / 19:15  
domeka 10: 16:30 / 17:15

### :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **Las cuatro hijas**  
domeka 10: 20:00  
astelehena 11: 20:00

### :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Pobres criaturas**  
barikua 8: 20:00  
domeka 10: 20:00  
astelehena 11: 20:15

• **¡Corre, Tiger, Corre!**  
domeka 10: 17:00

• **El acontecimiento (JBGA)**  
martitena 12: 20:15

• **Arnasa betean**  
eguztana 14: 20:15



Onintze  
Garcia Arana

Musikaria

ZORNOTZA | 1988

## “Talde berrian gustura gaude eta uste dut banda baten soinua lortu dugula”

Onintze abeslari eta sortzaile zornotzarrak banda berria sortu du. Hirukoteak Zornotza Aretoan ekin dio bideari

**ZORNOTZA** • JONE GUENETXEA

Seiren taldean izan duen esperientziaren ondoren, Onintze abeslariak bakarkako bidea hautatu zuen. Eszenatokian taldeak ematen duen babesik barik, gitarra eskuan, bakarkako ibilbideari ekin zion. Besteak beste, Alex Ubagoren biran abestu zuen. Orain, Onintzeren ibilbideak beste norabide bat hartu du. Banda bat sortu du Antxon Sarasuagaz eta Ander Zulaikagaz.

**2023an ¿Por Qué Quedarme Callada?** kaleratu zenuen eta hainbat hiriburutan ibili zara. Zelako esperientzia izaten ari da?

Oso ona, egia esan. 2022ko amaieran disko laburra atera genuen, abenduan, eta 2023an hasi nintzen kontzertuak ematen, urtarrilean. Bakarkako bira bat egin nuen, zenbait instrumentu joaz: gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa eta pianoa. Bilbon, Iruñean, Donostian, Madrilen eta Bartzelonan izan naiz, besteak beste. Esperientzia polita izan da eta bakarrrik jotzera ausartu naizen lehenengo aldia izan da. Batzuetan bakarrrik jo izan dut, hiru-lau kanta, promozio baterako. Ordu eta erdiko kontzertu bat bakarrrik egitea izan da

berria niretzat. Banuen beldurra, edo errespetua, beste musikariek bazaude lasaiago zaudelako. Baina oso gustura jo dut bakarrrik, eta jendeagaz eta neure lanagaz oso gustura sentitu naiz. Esango nuke jendeak asko baloratzen duela bakarrrik jotzea eta instrumentu desberdinak jotzea.

**Alex Ubagoren 20 años birako artista gonbidatua izan zara.**

Bai. Kontzertu bitan izan nuen aukera hori. Berak baino lehenago jo nuen; ordu erdiko kontzertuak izan ziren, Bilboko Kafe Antzokian eta Iruñeko Zentral aretoan. Oso esperientzia polita izan zen, bere lantaldeak oso ondo tratatu ninduen eta bere publikoari nire kantak ezagutaraztea ederra izan da. Alex oso jatorra da, gertukoa, eta hartu-eman polita sortu dugu.

**Proposamen bat egin zidaten: Islandiara joatea eta iceberg batean grabatzea. Ni prest nengoen**

**2006an Seiren taldeagaz hasi zinen. Geroago, bakarrik aritzea erabaki zenuen. Zein izan zen inflexio puntua?**

Seirenegaz ilusioa galdu genuen. Taldekide bakoitza bere kontuetan murgildu zen eta eternaldi bat egin genuen. Abesti batzuk idatzita nituen, baina Seirenen ez zuten lekurik. Orduan, abestiak biltzen hasi nintzen, ingurukoekin berba egin nuen eta aurrera jarraitzeko esan zidaten. Prozesu naturala izan zen.

**Euskaraz eta gaztelaniaz abestu izan duzu. Zelakoa izaten da sormen prozesua?**

Euskaraz zein gaztelaniaz idazten dut, modu naturalean irtetzen zaidana idazterako momentuan. Seiren taldean geundenean, batez ere euskaraz idazten genituen kantak, baina batzuetan gaztelaniaz ere bai. Orain, oster, alderantziz gertatzen zait. Gaztelaniaz egin dudanez, azken proiektua gaztelaniaz idatzi gura nuen, baina abesti batzuek euskara eskatzen zidaten. **2018an A la luz de la luna abestia egin zenuen. Bideoklipa Islandian grabatuta dago.** Proiektu berria hasterakoan, abesti batzuk grabatu nituen, eta A la

*luz de la luna* izan zen kaleratu nuen lehenengoa, single formatuan. Oso gustura geratu nintzen abestiagaz, indarra zuela uste nuen eta zeozer desberdina eta deigarria egin gura nuen proiektuari hasiera emateko. TAOM ekoiztetxeak lagunak ditut eta eurekin berba egin nuen, nire ideiak proposatu nizkien. Geroago, berriro elkartu nintzen eurekin, eta proposamen bat egin zidaten: Islandiara joatea eta iceberg batean grabatzea. Horrela grabatzeko gogo zuten eta ni prest nengoen.

**Neox Discover lehiaketako saria irabazi zenuen.**

Bideoklipak bidali behar ziren eta lehiaketara aurkeztu nintzen. Jende askok parte hartu zuen eta epaimahai batek eta publikoaren botoek banatzen zituzten sariak. Hiru irabazle egon ginen eta hortik beste bide bat zabaldu zitzaidan.

**Punto de Partida albuma Paco Salarregaz grabatu zenuen. Zelako esperientzia izan zen?**

Abestiak idatzita eta landuta nituen, maketak eginda, eta beste puntu bat eman gura nion. Sare sozialen bitartez jarri nintzen

hartu-emanen Pacogaz. Nire abestiak bidali nizkion, gustatu zitzaizkion, eta aurrera egin genuen. Bigarren diskoa, adibidez, Juan Guevaragaz egin dut. Pacoren bitartez ezagutu nuen, lehenengo diskoa grabatzen geundela.

**Momentu honetan, zer duzu esku artean?**

Taldeagaz kontzertu formatu berri bat prestatu dut 2024rako. Urtarrilean estreinatu genuen, Zornotza Aretoan. Hiru musikari egoten gara eszenatoki gainean. Nik abestu eta gitarra elektrikoa jotzen dut, solista; Antxon Sarasuak soinu baxuak jotzen ditu, teklatu batez, eta pianoagaz, sintetizadoreagaz eta koruekin ere aritzen da. Ander Zulaika bateria-jotzailea da eta koruak ere egiten ditu. Hirurok abesten dugu eta hirurok jotzen ditugu instrumentuak. Askok landu ditugu moldaketak, gustura gaude eta uste dut banda baten soinua lortu dugula.

**Zelakoa izan zen estreinaldi hori zure herrian, Zornotzan?**

Oso polita. Seiren taldeko Jokin gonbidatu izan genuen, eta abesti bi jo zituen gugaz. Oso hunkigarria izan zen. 8 urte ziren eszenatokia azkenengoz partekatu genuenetik.

**Hemendik aurrera, zeintzuk helburu dituzu musikan?**

Musikan jarraitu ahal izatea gura nuke, musika sortzen eta kalera-tzen, eta kontzertuetan jotzen. Ez dut besterik eskatzen.

**FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO**

Elorrio futbol klubak 100 urte egiten ditu aurten. Arin esaten da, baina ez da edozelako lorpena. Bizkaiko klubik beteranoenetariko da. Horregaitik, mendeurrena merezitako moduan ospatzeko, ekitaldi sorta antolatu dute. Joan zen barikuan iragarri zituzten ekimenak, Arriola antzokian eginiko ekitaldian.

Ekimen batzuek data zehatza dute. Martxoaren 22an Korrika Elorriotik igaroko da eta futbol klubak bertan parte hartuko du. Maiatzaren 25ean, Athletic, Eibar eta Elorrio taldeek torneo bat jokatu dute Eleizalden. Ekainaren 22rako emakumezko jokalaririk ohien partidua jokatu dute. Partidu horren ondoren, herrigunera joango dira, txaranga batek lagunduta, eta ospakizuna herri osora zabalduko dute: herri bazkaria, haur-parkea, musika... Esandakoaz gainera, urteko astebururen batean Elorrioren historiako lehenengo partidua errepikatuko dute: Elorrio-Gernika.

Beste ekimen batzuk orokorrak dira edo urte osoan zehar egingo dituzte. Esaterako, emakumeen eta gizonen partidua askotan, kluba handi egiten lagundu dutenek ohorezko satea egingo dute. Bestalde, argazki zaharrekin osaturiko erakusketak egongo dira herriko tabernetan, urte osoan zehar; Eta Iturri kultur etxean ekainean. Horrez gainera, klubaren 100 urteko historia jasoko duen liburu bat ere argitaratuko dute. Igor Basterretxea eta Imanol Tabera historialariak dabilta zeregin horretan. Azkenik, mendeurrenako abesti bat sortu-

# Elorrio futbol taldeak ospakizuna iragarri eta bere historia errepasatuz hasi du mendeurrenako urtea

Futbol partidu bereziak, urteurrenako liburua eta erakusketa bat dira 100. urteurrena ospatzeko antolaturiko ekimen batzuk



Elorrio taldeko gaur egungo eta lehengo jokalariek, Arriola Antzokian.

ko dute eta Elorrioko jaietarako hainbat ekintza antolatzeko asmoa dute. Besteak beste, jaietako pregoia irakurtzea egokituko zaiela aurreratu zuten.

## Iraganeko kontuak

Baina dena ez zen aurrera begirakoa izan. Atzera begira jarri eta

klubaren historia errepasatzeko ere baliatu zuten agerraldia. Historia egiten lagundu duten protagonistariko batzuk eszenatokira igo ziren: Pedro Eriz, Juan Mari Lertxundi, Igor Basterretxea, Marijo Martin, Raket Zamalloa, Iñaki Madariaga eta Itsasne Larruskain. Elorrio futbol klubak 1924an ha-

si zuen bere ibilbidea ofizialki. 1932tik 1947ra, 15 urteko etenaldi bat izan zuen, Gerra zibila eta beste arrazoi batzuk tarteko. Baina kluba indartsu bueltatu zen, futbol zelai berri batez: 1947/1948 denboraldian inauguratu zuten Eleizalde. Sasoi hartako jokalaria izan zen Pedro Eriz. Ez dago esan beharrik

orduko futbola oso desberdina zela. "Orduan, gure duxak erreka ziren, elurra eginda ere", gogoratu zuen.

1979tik 1981era, denboraldi bitan, Elorriok Hirugarren Mailan jokatu zuen, inoiz jokatu duen mailarik altuenean. Talde historiko hartako jokalaria izan zen Juan Mari Lertxundi. "Taldea sendoa geneukan. Azken partiduan lortu genuen igoera, Zornotzan, eta oso pozgarria izan zen denontzat", nabarmendu zuen.

1969an emakumeen partiduren bat jokatu zen Elorrioren, eta trofeoreen bat ere lehiatu zuten, baina ez zuen jarraipenik izan. Beraz, ofizialki 1991/1992 denboraldikoa da emakumeen lehenengo taldea. Marijo Martin eta Raket Zamalloa jokalaririk aitzindari haietariko bi dira. Hasieran, Lourdesko Ama ikas-texeko kantxan entrenatzen ziren; aldagarik barik eta euria egiten zuenetan bustita, baina "animoso". Federatzea pentsatu, eta ideia hori mahaigaineratu zioten klubari. Baietz esan zieten, baina fitxak eta gainerako kontuak eurek kudeatzeko baldintzagaz. "Pegatinak eta kamisetak saltzen hasi ginen, dirua lortzeko. Bizkaiko ligan sartu ginen. Orduan sei talde zeuden", gogoratu zuten. Urte haietako entrenatzaileei esker ona adierazi zieten jokalariek.

## Jokaldia

### Martxoak 8

Alaba Carlottak lehenengoan esan zidan moduan: "Badator bai, egun morea". Martxoak 8 dugu gaur, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Ez da beste egun bat gehiago, egutegian egun seinatua da niretzat eta gu guztiontzat. Hedabideetan egun honi lotutako bateko eta besteko albisteak irakurri eta ikusiko ditugu. Hedabideak Martxoaren 8ko aldarrikapenak zabaltzeko erreminta garrantzitsua dira, baina uste dut lan hori egunerokoa izan beharko litzatekeela, urteko egun guztietakoa.

Gaur mundu guztia gogoratzen da Emakumeen Nazioarteko Eguna eta egun honen atzean dauden aldarrikapenen inplikazioez, baina mundu honetan hainbeste urte daroagunok badakigu helburuak lortzetik oso urrun gaudela



Eneritz Iturriaga  
Mazaga  
Txirrindularitza

**Martxoak 8 dugu gaur. Ez da beste egun bat gehiago, egutegian egun seinatua da niretzat eta guztiontzat**

**Nire sasoi bano hobeto gauden arren, oraindik interes gutxi sortzen du emakumeen kirolak**

oraindik. Bost urte daramatzat nesken taldeekin eta harrobiarekin lanean eta diodana lehenengo pertsona pairatu eta sentitu ahal izan dut. Urte hauetan hainbat ate jo ditut diru laguntza bila, umeentzako eta emakumezko txirrindularitzarako laguntza eske, eta ni txirrindulari izan nintzen sasoi bano ho-

betu gaudela uste dudana arren, oraindik interes gutxi sortzen du emakumeen kirolak.

Eta ez da txirrindularitza mugatzen den zerbait, kirol guztietara zabaltzen dela esango nuke. Emakumeetan munduko futbol jokalaririk onenek kobratzen dituzten soldata txikiekin erreparatu besterik ez dago kirol askori eragiten dion arazoa dela jabetzeko.

Egiturazko arazoa dela uste dut eta denon artean aurre egin behar diogu. Eguneroko eguneroko egin beharreko lana da, apurka-apurka berdintasunerara bidean joateko. Eta arlo askotako ahaleginak izan behar du. Komunikabideek emakumeen kirolari buruz informazioak bezain besteko garrantzia du politikarien diru laguntzak oinarria helbetez, behera helduak, beti erdibidean geratzen dira eta.



## Botikak

**BARIKUA, 4** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 5** · 09:00-09:00

ETXEARRIA  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN DIAZ  
URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA  
MURUETATORRE 2C - DURANGO

SARRIA  
SASIKOA 17 - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.  
ABASOLO 2 - DURANGO

DE DIEGO  
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

BALENCIAGA  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBA  
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

MELERO, ROSA MARI  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 6** · 09:00-09:00

SARRIA  
SASIKOA 17, DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 7** · 09:00-09:00

DE DIEGO  
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 8** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 9** 09:00-09:00

MUGICA  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 10** · 09:00-09:00

BALENCIAGA  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



### GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.



Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozaturgozotegia



Zorionak, **Unax!** Martxoaren 4an 4 urte egin dituzu. Jarraitu beti hain polita eta alai izaten. Musu handi bat zure familiaren partez.



Zorionak, **Paul!** Gaur, martxoak 8, 9 urte egiten dituzu. Danon partez egun oso polita pasa dezazula espero dugu. Muxu handi bat!



Martxoaren 2an, 1944an jaiotako kintoak Durangoko Gran Hotelean elkartu ginen gure urteroko ekitaldia ospatzeko. Aurten, gainera, Juan Mari Perugorria, Juan Antonio Elguezua, José Oriondo eta Ceferino Begoña 'Txefe' batu zitzaizkigun.

## Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 7° / 13°

DOMEKA 🌧️ 6° / 14°

ASTELEHENA 🌧️ 7° / 13°

MARTITZENA 🌧️ 7° / 13°

EGUAZTENA 🌧️ 6° / 17°

EGUENA 🌧️ 10° / 17°

## Eskelak



### Mikel Sopelana Basauri

Iurretan hil zen, 2024ko martxoaren 7an, 77 urte zituela

*Sortu da isilunea,  
hegaz joateko unea,  
geugan itzi dozu zure eredu  
gazte ta deskonformea*

Iurretako Kofradien Batzotdea



### Mikel Sopelana Basauri

Iurretan hil zen, 2024ko martxoaren 7an, 77 urte zituela

*Montoitik Gaztañetzara  
kantuen, jantzan plazara.  
Gureztat Mikel beti  
gaztie izengo zara*

Ijorretako lagunak

MUSIKA

FAMILIA - ANTZERKIA

ANTZERKIA

## BERRIZKO KULTUR ETXEA

Kantuak berbekaz bete  
Kutxartean  
Nevenka

Ots 17, 19:00  
Ots 23, 17:00  
Ots 24, 19:00

Programazio guztia

## MAITASUNA

AGORA  
Ezagutzaren plaza

**Martxoaren 12an, 18.30ean**

**Iurretako Herri Bibliotekan**

Hizkuntza: euskara  
Aldez aurretik izena emanda  
946812726  
biblioteca@iurreta.eus  
Whatsapez edo telegramez  
688863736

**Manex Bilbao Mugica**  
Diseinatzailea  
**DURANGO | 1995**



## “Diseinuak funtzionaltasuna eta estetika uztartzen dituela ikusi nuen Milanen”

Orain hiru urtetik hona, Manex Bilbao diseinatzaile durangarrak bere estudioa du Valentzian

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

**Estetikak eta funtzionalitateak eskutik helduta joan behar dute diseinuan. Halantxik dio Manex Bilbaok. Hala ere, industria munduan, diseinuak berezkoa duen hainbat alderdiri ez zaiola duen garrantzia ematen uste du. Bada, alderdi horiei berriro ere duten balioa ematea du helburu Manex Bilbao Studiok. "Diseinua ez da bakarrik zeozer bisualki polita sortzea; badaude beste alderdi batzuk aintzat hartu beharrek", nabarmendu du. Altxariak eta argiteria diseinatzerakoan, natura du inspirazio iturri. (@manexbilbaostudio)**

**Diseinuan funtzionalitatea ezinbesteko ezaugarria dela uste duzu? Horixe da Manex Bilbao Studioren oinarria?** Bai. Diseinua aipatzean, artean pentsatzen dute askok. Pieza izugarri konplikatua etortzen zaie gogora. Baina artea artistagaz bat

datorren moduan, diseinuak erabiltzaile batez bat etorri behar du. Nik ez dut neuretzat diseinatzeko, baina artistak berarentzat eta bere ikuspegitik sortzen du. Ez da berdina arkitekturarako mahai bat, 6-8 laguneko familia batentzako mahai bat edo 4tik 8 urtera bitarteko ume batentzako mahai bat diseinatzea. Kasu bakoitzean, funtzioa bat da. Nork fabrikatuko duen, zein prozesu eta material erabiliko diren, kostuak, erabiltzaileak... kontuan hartu behar dira. Eta, jakina, alderdi estetikoak ere bai. Diseinua hainbat industria arlorako eramatea gura nuke, funtzionaltasunaren eta estetikaren uztarketa lortzeko lokarri izatea enpresetan.

**Valentzian zeure estudioa sortzea erabaki zenuen orain hiru urte. Zerk eroin zintuen hara?**

Diseinu Ingeniaritza ikasketen azken urtea Milanen (Italia) egin nuen. Han ikusi nuen diseinuak funtzionaltasuna eta estetika uztartzen dituela, eta uztarketa horrek sorturiko ikusminak bultzatuta etorri nintzen Valentziara. Bategite horretan oinarrituriko diseinua balio erantsia izan daiteke produktu batean, eta hori landu gura nuen, arlo guztietara zabalduz. Ia sei urte daramatzat Valentzian.

**Zelakoa izan da orain arteko bidea?**

Pozik gaude. Oraindino lehenengo eguneko gogo berdinez nago. Diseinuaren mundua ez da erraza. Badaude izen handiko diseinatzaileak, eta, zeretik hastean, enpresa handiek zuzen konfiantza izatea ez da erraza. Gogo handia ipini behar da, baina oso pozik nago eguneko aukeragaz. Egunetik egunera

asko disfrutatzen dugu. Egurragaz, zeramikagaz, metalagaz, beiragaz... lan egitea ez da gauza bera, eta enpresa bakoitzak bere lan egiteko moduak ditu. Proiektu bakoitza erronka berri bat da. Horixe da gure egunerokoa, eta bizipoza ematen digu. Enpresa handiekin ez ezik gertuko artisauekin ere lan egiten dugu.

**Etortzen zara Durangora?**

Normalean, hile birik behin joaten naiz. Bertan ditut sustraiak, eta oso gogoan dut. Gainera, Euskal Herriko natura inspirazio iturri handia da. Diseinaturiko azken mahaiak Zumaiako flyscha du oinarri.

**Donostian egon berri zara, pieza bat aurkezten.**

Iori Hontegaz batera, Escapo markarentzat eginiko loreontzia aurkeztu dugu Loreak Mendingoan. Hala ere, kasu honetan, arte pieza bat sortzen ahalegindu gara, funtzionaltasuna ere garrantzitsua den arren. Loreak izango duen besteko garrantzia eman gura izan diogu loreontziari ere. Eferbeszentzian oinarritu gara eta burbuilen batasun horregaz jolasean ibili gara hainbat barrunbe sortzeko. Artistikoa den pieza batek hainbat funtzio betetzea bermatu gura izan dugu. 3Dn inprimatuta dago. Birziklaturiko plastikoa erabili dugu, metalezko kapa mehe batek estalita.

**Material birziklatua erabiltzen duzu?**

Bai. Orain gutxi, kafearen hondarrek eginiko loreontzi bat diseinatu genuen. Bartzelonako Sarsey markagaz eginiko proiektua da. Trataturiko kafe hondarra, portzentaje txiki batean, plastikoz nahastu dugu. Bestalde, eraitsitako eliza bateko egurragaz eginiko mahai bat eta birziklaturiko beiragaz sorturiko lanpara bat lantzen gabilta, adibidez. Material horiek zelan jokatzen duten ikustea gustatzen zait, horregaz lan egitea.

**Baduzu erreferentziarik?**

Valentziako Yonoh estudioren lana oso inspiratzailea da. Eta Dieter Rams industria diseinatzailea asko gustatzen zait. Karim Rashid diseinatzailearen eta Zaha Hadid, Le Corbusier eta Mies Van de Rohe arkitektoen lanak ere oso gogoko ditut.

## Lauhortza

Sergio Murillo Corzo  
Ekonomilaria



**Konplize moreak**

Gaur martxoak 8 ditu. 42 urteko seme, bikotekide eta aita naz. Eta nik ikusi dodan aita izateko modua nahiko aldentuta dago nik aita izateko aukeratu dodan eratik. Ez dot inor epaitzen, ni neu ere inperfektua naz eta! Pertsona askeen Herri aske baten sinisten dot, eta horren aldeko lanean jardun dot eta jardungo dot.

Gaurkoan, feminismoaren ekarpenen azpimarra pertsonala egingo dau bakoitzak. Niretzat egun aproposa da, zuetaz harro nagoala esateko. Bestelako aita izateko era euki daben bikotekidekaz hazi gaituzuen ama, amama eta birramamez harro nagoala esateko aukera parebakoa. Izan ere, zuek ere inoz dozu askeago izateko aukera hau, askatasun itxura eukun genero pribilegioak eraitsiz, eta bide barria erakutsiz. Nire amari esateko aukera daukat oraindik, ziu-rrenik ondo adierazteko eta ulertarazteko gai ez nazen arren. Nire bizitza-kideari esan baino, bidea erakusten jarraitzeko eskatzen deusat. Lankideentzat, laguntzat eta bidelaguntzat, izan bedi zutabe hau eskertza mezua.

Mikel Markezek musikatutako Uxue Alberdiren “Konplize ditut eta maite ditut denak” ahapetik kantatuz egingo dot egunaren joana. Langileak, alferrak, lanik ez dutenak, tuntuak, mediokreak, klaseko lehenak, ale desegokiak, andre txit gorenak, konplize ditut eta maite ditut denak. Askatasuna maite dogunon konplize moreak zarie danak, feminismitik jorratutako bide barrietan.

**IURRETA ERAIKUNTZA BERRIA**

INFORMAZIO GEHIAGO  
inmobiliaria KBIA  
DURANGO

**kbia**

94 612 35 41

Arrosa koloreko bizitza

GRUPO EIBAR • 1974 • 2024

50 URTE ZUREKIN

comercial@grupoeibar.com  
www.grupoeibar.com

**Lorengunea**

BIZIGUNEA • IURRETA

2, 3 eta 4 logelako etxebizitza eta atiko argitsuak, terraza zabalekin eta bista garbiekin  
Terrazen itxiera kristalezko gortinarekin  
planta tipoetan • garajeak • Erdigunetik hurbil egoteaz eta ingurune lasaiaz gozatu

www.LORENGUNEA.COM